



## Erlezain txikien eztiola

Durangaldeko hamabost erlezain txiki Erlete elkartearen batu dira, eztiola baten proiektua martxan jartzeko asmoz. Erlezainek bertan atera eta ontziratu ahalko dute euren ezti, gero herritarrei saltzeko. Erleak gure ingurunean duen garrantzia ere gizarteratu gura dute. • 2-3

## Gibealeko transplantearen ostean, "oso ondo eta animatuta" dago Naroa Aranburu mallabitarra

**Mallabia** | Uztailean egin zioten ebakuntza Bartzelonan, eta han jarraituko dute berak eta bere familiak, errehabilitazioa amaitu arte. "Mundu berri bat hasiko da Naroarentzat", dio Josefi Antxiak, Naroaren amak. "Askatasun handiagoa izango du". • 4. orrialdea



## Elorrioko eta Izurtzako jaiak 2018



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
**Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA: Irailaren 4tik 14ra.**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Asteleheneetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiralean: 09:00-13:00

## “Durangaldean bertako ezitia kontsumitzeko aukera bermatu gura dugu”

Erlete elkartekoek erleak zaintzea, ezitia ekoiztea eta gaia sozializatzea dute helburu

### DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

**Afizioa oinarri duten erlezain txiki-kientzat ez da erraza izaten ezitia ekoiztea. Etxean ahal den moduan ateratzea edota planta profesionalera jotzea dira ohiko aukerak, baina ekonomikoki inbertsioa edo gastua dakarkie. Bada, Durangaldean alternatiba bat topatu dute: erlezain txiki-kientzat ezitiola bat sortzea. Hori martxan jartzeko, instituzioen laguntza gura dute, inbertsio publiko hori ingurugirora eta herritarren bizi-kalitatera bueltatuko litzatekeela sinetsita. Beste zortzi gizon eta emakumegaz batera, Erlete elkarteak sortu duten erlezainak dira Aitor Unzueta durangarra, Urdaspal Alberdi iurretarra, Felix Zabarte elorriarra, Iñigo Mendibil eta Hegoi Escudero atxondarrak, eta Inazio Uruburu eta Roberto Ardanza abadiñarrak.**

**Ezitiola sortzeko proiektua duzue esku artean. Nondik dator?**

**Felix:** Usurbileko ezitiola bateko bazkidea naiz duela bi urtetik. Esperientzia ona izan da, eta hango eredia hartuta, bide horretatik goaz. Hamabost gara elkarteak.

**Iñigo:** Ikusi genuen Gipuzkoan badaudela ezitiola txiki bi martxan, Usurbilen eta Bidasoan, eta Zaldibian ere zabaldu berri dute orain. Inguruko erlezainek eztiolan ezitia era egoki eta txukunean ateratzeko aukera daukate. Behar diren tramankulu guztiak erosi barik, dena amankomunean ipinita. Biz-

kaiko erlezainen elkartearen al-dizkariaren bidez batzar baterako deialdia egin genuen, Elorrion, eta hamabost agertu ginen. Kasualitatez, denak Durangaldekoak, beste zonalde batzuetan hemen baino erlezain gehiago egon arren.

**Hegoi:** Sortu zen giroa eta interesa ikusita, elkarteak eskualdeari begirakoa izateko erregistratu genuen, aurrera begira Durangaldeko erlezainei zabaldua.

**Lokal bat lortu duzue Atxondon.**

**Hegoi:** Hemengo erlezainak oso txikiak gara, eta ez gara gai inbertsio denei aurre egiteko. Urtean momentu zehatz batzuetan erabiltzeko da, gainera. Era kolektiboan egitea logikoagoa da. Bestalde, azpiegitura egonkor bat jendearen eskura egonda, erlezaintza uzteko joerari buelta eman ahal zitzaioela ikusten genuen. Hasteko zalantzan dabilen erlezainak ere errazago

“**Hemengo erlezainak oso txikiak gara, eta ez gara gai inbertsio denei aurre egiteko**”

hartuko luke erabakia, erlauntz gutxigaz azpiegitura erabili ahalko lukeelako.

**Iñigo:** Lokal baten premia ikusten genuen, eta Urkiola Landa Garapeneraren bidez eskari hori bideratu zen udaletara. Handik sei hilera Atxondoko Udalak lokal bat eskaini zigun, eta Osasun Sailagaz kontratatuta, balioko zuela esan ziguten.

**Urdaspal:** Gainera, Osasun Sailak baimendutako azpiegiturari esker, ateratzen dugun ezitia saltzeko aukera edukiko dugu, eta Durangaldean bertako ezitia kontsumitzeko aukera bermatu gura dugu, ahal dugun heinean. Hori interesgarria iruditzen zaigu.

**Zelako harrera izan duzue udaletan?**

**Iñigo:** Gipuzkoan, eztiolak lortu dituzte inguruko tokiko administrazioek lagundu dutelako. Garbi dago hasierako bultzada hori beharrezkoa dela. Diru-laguntzak behar ditugu, obra zibila egiteko eta makinaria erosteko. Zornotzako Udalak diru-laguntza eman digu ikastetxeetan erlezaintzaz eta erleen garrantziaz hitzaldiak ematearen truke. Atxondokoak lokala utzi digu. Oso eskertuta gaude. Baina, bestela, lehiaketa publikoetan sartu gara eta ez du ematen asko lagunduko digutenik. Hor, lanpostu sorrerak, langileak eta horrelakoak baloratzen dira, baina gure asmoa ez da langileak edukitzea. Erantzunen zain gaude. Bestalde, saldu ezin zituen material batzuk oparitu dizkigu Fagor Industrialek.



**Beraz, ikastetxeetara joateko asmoa duzue?**

**Iñigo:** Guretzat garrantzia dauka sozializatzeak. Ikastetxeetara joan, ikasleak hona ekarri eta ezitia zelan ateratzen den erakutsi...

“**Diru-laguntzak behar ditugu, obra zibila egiteko eta makinaria erosteko**”

**Felix:** Gure helburua ez da ezitia eginez aberastea. Batez ere, afizioa da. Hirutan joan gara Zornotzako ikastetxeetara, eta oso pozik geratu gara guztiok, bai gu eta baita ikastetxeetara ere.

**Euskal Herria leku ona al da ezitia ekoizteko?**

**Felix:** Ez. Klimagatik eta landare-diagatik. Aurten euri asko egin du eta erlea gutxi irten da. Lore gutxi ikusi dugu eta ezitia ere dezente gutxiago jasoko dugu. Bestalde, hemen pinu asko dago, eta horrek ez du ezirik ematen.

**Iñigo:** Penintsulako beste leku batzuekin konparatzen badugu, hemen ezitia ekoiztea zailagoa da. Baina jendeak baloratzen du erleen egiten den lana, eta eutsi egin behar diogu. Izan ere, erleak ezinbestekoak dira ingurumenean, eta



Durungaldean ere egon behar dira. **Erleak ezinbestekoak badira, erlezainak ere bai.**

**Felix:** Esaten da erleek landareen %80 polinizatzen dutela. Beraz, lan oso garrantzitsua egiten dute. Erleak zaintza eskatzen du; badaude gaixotasun batzuk, tratatzen ez bada erlea hiltzen dutenak. Azken urteetan vespa velutina liztorra ere agertu da, Asiatic etorri edo ekarritakoa, eta min egiten du.

**Roberto:** Globalizazioak kaltea baino ez du ekarri erlearentzat: intsektizidak, pestizidak, barroaren gaixotasuna, vespa velutina... Gaztea nintzenez ez zegoen erlezaintza profesionalik, baina erleak basoan egoten ziren, ingurune askoz egokiagoa zeukatelako. Gaur egun, aurre egiteko modu bakarra erlezain txikiak batzea da. Gaine-

ra, administrazioari interesatzen zaio hamar erlezain edukitzea, bakoitza erle pilo bategaz, diru-sarrerak kontrolatuta edukitzeko.

**Inazio:** Lehen baserri askotan zeuden hiru-lau erlauntz, eta inguru-

“**Hirutan joan gara Zornotzako ikastetxeetara, eta oso pozik geratu gara guztiok**”

ko landareak polinizatzen zituzten. Baina euren kontura bizi ziren erle horiek desagertu egin dira, gaixotasunen eta inbaditzaileen eraginez. Gaur egun, atzean erlezainik ez badago, ez dago erlerik. Erlezain handiek ezin dute gure ingurua zaindu, erleak ezta ateratzeko sasoiak bakarrik edukitzen dituztelako hemen, eta beste urte erdian Soria (Espainia) eta inguruetan. Erlezain txikiak ez du hemendik alde egiten, hemengo landareak zaintzen ditu, eta saltzen duen ezta hemengoa da.

**Zergatik hasi zineten erlezaintzan? Non saltzen duzue ezta?**

**Aitor:** Aita zebilen lehenago, eta etxean eduki ditudalako hasi nintzen erleak zaintzen. Txikitatik jarraitu diot bideari. Lagun eta ezagunen artean banatzen dut ezta.

**Urdaspal:** Bost bat urte dira erlauntzak ditudanetik. Ateratako ezta apurra etxerako izan da, edo oparixoren baterako.


**Inazio:** Roberto eta biok lagunak gara txikitatik, eta orain 35 bat ur-

“**Erlezain txikiak hemengo landareak zaintzen ditu, eta saltzen duen ezta hemengoa da**”

te batera hasi ginen. Durango inguruan saltzen dugu, hango plazan, eta lagunaren artean ere bai.

**Hegoi:** Hau nire hirugarren urtea da, eta, momentuz, ateratzen dudana baino ezta gehiago jaten dut. **Iñigo:** Sei-zazpi urte daramatzat. Lanean [suhiltzailea da] erle asko batzen genuen, eta jendeak zer egin ez zekienez, etxera eramaten hasi nintzen. Ateratzen dudana ezta etxerako izaten da, edo laguntzat. Propolia ere hartzen dut, osasunerako oso ona da eta.

**Felix:** Elorrioren erlauntz batzuk utzita zituen erlezain batek. Deitu eta beragaz lanean hasi nintzen, 2014an. Iaz herriko azokan hasi nintzen ezta saltzen eta ondo joan zait. Ezta, propolia, polena eta erlekumeak ere saltzen ditut. Esperientzia polita da eta gustura nago.



Naroa Aranburu ezkerrean, Josefi Antxia eta Ismael Aranburu gurasoekin, Naroak berak ateratako argazkian. Irazu izeneko neba nagusiago bat ere badu.

## "Naroarentzat beste mundu bat hasiko da orain, askoz ere askatasun handiagoa izango du"

Uztailean Bartzelonan egin zioten gibeledako transplante batetik errekupeperatzen dabil Naroa Aranburu 13 urteko mallabitarra

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

"Naroa oso ondo eta oso animatuta dago", adierazi du Josefi Antxiak, Naroa Aranbururen amak. Uztailean gibelak transplantatu zioten 13 urteko mallabitar gazteari. Bartzelonako Vall d'Hebron ospitalean egindako ebakuntza ondo irten zen eta errekupeperatzen dabil. Oraindik Bartzelonan daude bera eta bere familia, eta hantxe egongo dira beste hilabetez gutxi gorabehera, errekupeperazio prozesua amaitu arte.

Bizitza erabat aldatu zaio. Alde batetik, gibelean garatzen ari zitzaion minbizitik libratu da. Bestetik, jaio zenetik organo horretan

duen gaixotasuna osatze bidean dago. Lehengo gibelak entzima bat falta zuen, baina oraingoak badauka, eta orain badu ahalmena bizimodua erosoago egingo dion proteina metabolizatzen. "Naroarentzat beste mundu bat hasiko da orain. Askoz ere askatasun handiagoa izango du", dio Antxiak. Elikaduran asko igarriko du. Bere dieta fruitu eta barazkietara mugatuta zegoen, funtsean. Orain, haragia eta bestelako proteinadun elikagaiak gehitzen ari da apurka bere dietara.

### Bizimodu berria

Transplante batek eskatzen duen

medikazioa hartzen jarraitu behar duen arren, tratamendu berria "askoz eramangarriagoa" izango dela azaldu du Antxiak. Izan ere, aurrerantzean izango duen nor-

### Beste hilabetez gutxi gorabehera, Bartzelonan jarraituko dute errekupeperazio prozesuan

maltasuna ez du ezagutu orain arte. Haurra zela—11 hilabetez—gaixotasun bat detektatu zioten Gurutzetan. Bere gibelak ez zituen

proteinak ondo metabolizatzen, eta horren ondorioz sortutako toxinak gibelak kaltetu zezaketen. Tratamendura eta elikadura zurrunekeo bizimodu horretara egokituta zegoen, baina 2016ko erresonantzia batean nodulu bat aurkitu zioten gibelean. Noduluaren bilakaera hurretik jarraitu eta iazko abenduko biopsia batek gaixotasunak okerrera egin zuela bistaratu zuen. Gurutzetatik Bartzelonako (Katalunia) Vall d'Hebron-era bideratu zuten bigarren iritzi bat jasotzeko, ere hauek diagnostikoa baieztatu zuten. "Nodulua itxura txarra hartzen zebilela esan ziguten", gogoratu du Antxiak. Bar-

tzelonako ospitalekoek proba gehiago egin gura zizkioten. Maiatzean bertara joan ziren eta kasua zehatzago aztertu ostean, transplanteko prozeduran sartzeko gomendatu zieten, gaixotasunak okerrera joateko itxura gutzia zuelako.

Egoera familian hausnartu eta bide hori hartzea erabaki zuten. Itxaron zerrendan sartu eta Bartzelonara tokialdatu ziren. Izan ere, ospitaleko deia jaso eta handik ordu bira bertaratu behar ziren gehienez. Minbizia duten umeen AFANOC elkarteko apartamentu batean hartu zuten ostatu, ospitalelik hamar minutura. Han euren antzerako egoeran zeuden familiak

### Gibeledako gaixotasunak okerrera egin ostean transplantearen bidea hartzea erabaki zuten

ezagutu zituzten eta hori "lagungarri" izan zitzaizela nabarmendu du Antxiak.

Itxaroten zeuden deia uztailearen 19 goizean jaso zuten, Naroa oraindik lo zegoela. Dena prestatu, eta ospitalera. Metodo baten bidez, emaile anonimo baten gibelak bitan zatitu eta transplante bi egin zituzten: Naroarena eta zortzi hilabetekeo haur batena. Ebakuntza aurreikusitako moduan irten zen.

### Organo-emaileen garrantzia

Naroaren errekupeperazioa ez zen posible izango organo-emailek barik. "Prozesu guztiaren oinarrian dago" eta horregatik azpimarratu gura izan du horren garrantzia Antxiak. "Seme bat galdu zuten eta ez dakit munduan hori baino une

### Familiak organo-emaileen garrantzia azpimarratu du. "Prozesu guztiaren oinarrian dago"

gogorragorik egongo den. Egoera horretan, besteengan pentsatu eta organoak ematea erabaki zuten. Ez dago erabaki eta keinu hori ordaindu dezakeen dirurik. Barru-barrutik eskerrak eman gura dizkiegu".

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko abuztuaren 31a  
16. urtea - 731. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale

2015 **Bikam**  
Bikam  
Bikam

PEFC  
Produktuak  
konsumatuak  
bosgarren  
eguneko  
18.000.000.000.000  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Abadiñon eta Durangon izan diren eraso sexista biak gaitzetsi dituzte, eta babesa eskaini diete eraso jasandako emakumeei

**DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI**  
 Durangon gertatutako azken eraso sexista gaitzetsi du udalak, eta eraso jasan duen emakumeari babesa eskaini dio. Martitzenean izan zen eraso, eta anbulatorioan artatu zuten emakumea. Gaineratu dutenez, bikotekidearen aurkako salaketa ipini du eraso jasan duen emakumeak eta ikerketa zabaldu dute gizonari genero bortizkeria egotzita. Plataforma Feministak deituta elkarretaratzea egin zuten atzo.

**Bikotekideari haginka eginda atzamarra anputatzeagatik gizon bat atxilotu zuten Abadiñon**

**Erasoa Astolan**  
 Abadiñoko Astola auzoan izan zen eraso matxista dela-eta, ikerketa zabalik du oraindik Ertzaintzak, udaleko berdintasun sailetik esan dutenez. Bikotekideari haginka

eginda atzamarra anputatzeagatik 27 urteko gizon bat atxilotu zuten abuztuaren 21ean. Atzamar zatia lurrean aurkitu zuten eta emakumea Galdaoko erietxera eraman zuten. Hainbat herritar batu zen eraso gaitzesteko. Emakumeak ez du salaketa jarri.

Bestalde, zapatuan Uhartan, bere etxean, hilda aurkitu zuten Natallya Ballyken hilketak salatzen kontzentrazioa egin zuten atzo Berrizen.



Traña-Matienako Pino plazan egin zuten elkarretaratzearen irudi bat.

## Osasun gida

anboto

**Naturopatia**

**NAROBA**  
 Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea  
 Drenatze linfatikoa.  
 Osteopatia.  
 Tratamendu naturalak  
 Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango  
 675 706 599  
 www.naroba.net

**Optometria**  
 PSE: 162/13

**keinu** optometria zentrua

Naia Zabala Azumendi  
 11587 kol. zk.

- Optometriari teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3  
 48240 Berriz  
 tel: 946225099

www.keinuoptometriazentrua.com

**Pedagogia**  
 PSE: 63/63

**UGATZ**

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**  
 Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
 DURANGO  
 ugatz@hotmail.es  
 944 668 370 - 615 782 090

**Fisioterapia**  
 PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
 behea eskuma  
 MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**  
 PSE: 57/16

**pablo zubizarreta**  
 fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
 DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
 946 550 049 - 695 784 963

**Fisioterapia**  
 PSE: 155/17

**HOBETU**  
 Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es  
 T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2  
 P.K./ 48230 Elorrio  
 www.hobetu.es

**Podologia**  
 PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO**  
**PODOLOGIA KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**  
 Podologoa

**AINHOA ELORZA**  
 Podologoa

**NEREA RODRIGUEZ**  
 Podologoa

Kiropodia, onikopatia, alteraziodermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO  
 946 203 630

**Odontologia**  
 PSE: 145/13

**clínica dental hartzklinika**  
 b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA  
 ETA ESPEZIALITATEAK  
**08:00etatik 21:00etara ZABALIK**

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}  
 DURANGO  
 Tel.: 946 819 951  
 Mug.: 717 194 454  
 uecdental@gmail.com

**Odontologia**  
 PSE: 112/13

**J.L. URRETA ZABALO**  
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
 IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
 Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
 48200 DURANGO  
 Tel.: 946 812 200

**Estetika**  
 PSE: 16/09

**AGIRRE KLINIKA**  
 MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

**Laser berria:**  
 Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
 48200 - DURANGO  
 Tel.: 946 810 387

**Psikologia**  
 PSE: 62/11

**JON ARRUBARRENA**  
 PSIKOLOGO KLINIKOA  
 PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
 jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
 Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

## Muruetako lurak birkalifikatuko dituzte, Alren eta EAJren aldeko botoekin

ABADIÑO • A.M.

Airen eta EAJren aldeko botoekin Udal Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala onartu zuten uztailean; EH Bilduk aurka bozkatu zuen. 2016an Murueta auzoko lurak birkalifikatu eta hainbat saltoki zabaltzeko plana iragarri zenetik, soka luzea dakar gaiak. Azken erabaki honengaz, 32.000 metro karratuko lur eremu urbanizazina erabilerara komertzial eta tertziario hirilur bihurtzea da helburua; prozedurako lehenbiziko fasea onartu da honenbestez. Erabakiak eztabaida piztu zuen osoko bilkuran. Udal gobernuak eta oposizioak Abadiño eraikitzeko ikuspuntu ezberdinak defendatu zituzten osoko bilkura horretan.

## Frontoia eraberritu du Zaldibarko Udalak, horretarako 15.000 euro erabilia

ZALDIBAR • A.M.

Olazar frontoiak azken boladan edukitako itxura hobetzeko asmoz, Zaldibarko Udalak eraberritze lanak egin ditu udan zehar. Pilotalekua pintatzeaz gainera, logo berria ere ezarri

**Zaldibarko herriko logo berria ere margotu dute frontoian, eta itxura berritua du orain**

dute bertan. 15.000 euro erabili ditu udalak horretarako. "Frontoiak horrelako itxura aldaketa bat behar zuen, berritze bat, azken aldian nahiko higatuta zegoen eta", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak.

# Durangon 290 etxebizitza gehiago eraikiko dituzte Kabilduoste eta Arripausuetako proiektuekin

EH Bilduk ohartarazi du beste hainbat proiektu daudela aurreikusita: "Hauteskunde aurretik onartu gura dituzte"

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Arripausuetan 145 etxe eraiki ahal izateko birpartzelazioa dekretu bidez egin duela gobernu taldeak salatu du EH Bilduk. Herriaren

duosten –Galtzaretan, San Roke eta saihebidetaren– 146 etxeren proiektua onartu zuten gobernuak eta PPK. Gainera, EH Bilduk ohartarazi du, Eguzkitzagoienan 356 etxe egitea aurreikusita dagoela, Birgiñosten 130, San Fauston 446,

Iparzabalarran 138, San Roken 221, Artabillan 81, eta geltokiko lurretan 554. "Hauteskunde aurretik onartu gura dituzte, herritarrei galdetu barik", esan dute. 2006ko plan orokorrak ahalbidetuta, 2.675 etxe eraiki daitezke oraindik Durangon.

**PSE-EEren desadostasuna**

Gobernu taldearen parte da PSE-EE, baina herriko batzorde exekutiboa ez dago ados "dekretu bidez" hartutako zenbait erabakigaz, eta etxebizitza politika ere ez du begi onez ikusten.

**Osoko bilkuran, Kabilduosten 146 etxeren proiektua onartu zuten gobernuak eta PPK**

Eskubidea ere kritiko azaldu da. "Durangoko gobernu taldeak berriro abuztua erabili du krisi sakon batera eramanez gintuen politika urbanistikoa ezkutatzeko".

Arripausuetakoa ez da etxe berriak egiteko proiektu bakarra. Uztaileko osoko bilkuran, Kabil-



Galtzaretan eta saihebidetaren arteko eremuan, Kabilduosten, 146 etxe eraikiko dituzte.

## Europako Iraunkortasun Sarietarako hautatu dute Durangoko Udala

Durango beste 39 herri, hiri edo erakundegaz batera lehiatuko da azaroan Bruselan egingo den sariketan



Bidegorri sarea da iraunkortasunaren alde Durangon eginiko proiektuetako bat.

DURANGO • J.G. / M.O.

2018 Transformative Action Award Europako Iraunkortasun Sarietarako hautatu dute Durangoko Udala, eta beste 39 herri, hiri edo erakundegaz lehiatuko da azaroan Bruselan (Belgika) egingo den sariketan. "Oso pozik gaude ingurumenaren zaintza eta hiri mugikortasun iraunkorra lortzea helburu duten udal politikak sustatzearen eskaini diguten errekonozimenduagatik", adierazi du Aitziber

**Klima aldaketari aurre egiteko, 'Faktore Berdea' plana aurkeztu dute bertan**

Irigoras alkateak. Klima aldaketari aurre egiteko, Faktore Berdea plana aurkeztu dute bertan.

Herriaren Eskubideak kritikatu duenez, ostera, udalak "plano eta argazki irrealak" aurkeztu ditu lehiaketara.

## Airearen datuak "arduratzekoak" dira, Herriaren Eskubideak azaldu duenez

DURANGO • M.O.

Udan zehar airearen kalitatearen inguruko neurketak egin ditu Eusko Jaurlaritzak San Roken, Tabiran eta Iurretako Arriandin unitatea ipinita. Neurketak sasoi honetan egitea kritikatu du Herriaren Eskubideak, enpresen jardura eta trafikoa murriztu egiten direlako.

Hala ere, datuak "arduratzekoak" direla sarri azaldu du alderdiak. Astelehenean bertan "kutsadura kontzentrazio altua" egon zela ohartarazi du.

**Astelehenean bertan "kutsadura kontzentrazio altua" egon zela ohartarazi du alderdiak**

# GAER DESINFEKZIOAK



**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

## Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

# Iurretako N-634 errepide nagusia "kale bihurtu" gura du Bizkaiko Aldundiak 2019an hasiko dituen lanekin

Lanak 1,6 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute guztira, eta udalak eta foru aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute horri aurre egiteko



Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea eta Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatua, lanen nondik norakoak azaltzeko emandako prentsurrekoan.

**IURRETA** • J. GUENETXEA / A. BASAURI  
"Herriaren etorkizunerako, premiazko obra da hau. Lubaki bat kendu, eta herria egituratuko duen bidea sortuko dugu". Horrela azaldu ditu N-634 errepide nagusian egingo dituzten lanak Iñaki Totorikaguena herriko alkateak. Uztai-

lean, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Bizkaiko Aldundiagaz horretarako. Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuaren esanetan, "errepidea izan dena kale bihurtuko dugu".

2019ko urte hasieran aurreikusi dute lanak hasia, eta, ho-

**Datorren urtean hasiko dituzte N-634 errepideko lanak eta 7-8 hilabetera amaituko dituzte**

rretarako, adjudikazio prozesua urtea amaitu baino lehen hasia espero du Totorikaguena. Aldundiak esleituko ditu 1,6 milioi euroko kostua izango dituzten obrak. Lanak amaitzeko, 7-8 hilabete beharko dituztela azaldu zuen Pradalesek uztailean egindako agerraldian.

## Iurretako N-634 errepidearen eraldaketa datuetan

- **AURREKONTUA:** Lanek 1,6 milioi euroko kostua izango dute: Iurretako Udalak 922.505 euro jarriko ditu, eta Bizkaiko Aldundiak, 634.460 euro.
- **EPEAK:** 2019ko lehenengo hiruhilekoan aurreikusi dute lanak hasia.
- **EZAUGARRIAK:** 700 metroko errepide zatian, orduko 50 kilometroko abiadura hartu ahal izango dute ibilgailuek gehienez.
- **SEGURTASUNA:** Biribilgune bi eta bost zebra-bide jarriko dituzte. Bidegorria eta semaforoak ere bai, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

## Erramun Osa izango da Garaiko EAJren alkategaia 2018ko hauteskundeetarako

**GARAI** • J.G. / M.O.

Erramun Osa Ibarloza zinegotzia izango da EAJren alkategaia 2018ko udal hauteskundeetarako. "Legegintzaldi honetan udalbatza osatzen dugun bi taldeok ahalegina egin dugu erreparatuak gainditzeko, desberdintasunak alde batera uzteko eta gure bizilagunen bizitza hobetzeko", baloratu du.

Aurrera begira, gazteak herrian geratu ahal izateko etxebizitza politika sustatzea, "nagusientzat herri atsegina" lortzea, ekonomia ingurua zainduz bultzatzea eta kultur ondareari balioa ematea dira bere helburuetako batzuk.



Erramun Osa, EAJk bidalitako argazkian.

## Baserriak zatitzeko aldaketaren gaineko argibideak jaso ditzakete interesatuek

**MAÑARIA** • JOSEBA DERTEANO

Uztaileko udalbatzarrean hasierako onarpena eman zioten baserriak zatitzea ahalbidetuko duen arau subsidiarioen aldaketa puntualari zein Hiri Antolamenduaren Plan Orokorriari. Bi prozedurak jendaurreko informazio epean daude iraila amaitu arte. Ildo horretatik, talde teknikoko kideekin egoteko aukera dute dudak argitu gura dituztenek. Eurekin ordua eskatzeko, irailaren 4a baino lehen deitu dezakete udaletxera.

## Nekazalturismoraino helduko den espaloi berria egiteko lanak hasi dituzte abuztuan

**OTXANDIO** • J.D.

Arrabaleko zubitik Etxebarri nekazalturismoraino helduko den espaloi berriko lanak martxan dira. Abuztuan hasi dira eta hiru bat hilabete iraungo dute, udal ordezkariak jakinarazi dutenez. Espaloiak 600 bat metroko luzera izango du. Lan horiek aprobetxatuz, espaloiaren azpitik askotariko azpiegiturak sartuko dituzte: saneamendu sarea, ur-hoditeria... Horrez gainera, espaloiaren zehar hainbat kale-argi jarriko dituzte.

**guk gure etorkizuna eraikitzen dugu**

**Azken plazak**  
Goi eta Erdi mailako Lanbide Heziketan  
**Eman izena!**

**lea artibai**  
ikastetxea

**ERDI MAILA**  
• Beroa sortzeko instalazioak

**GOI MAILA**  
• Administrazioa eta finantzak  
• Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea  
• Web aplikazioen garapena

**HETEL**  
HUMANITY AT WORK  
MONDRAGON

Markina-Xemein (Bizkaia) • 94 616 90 02 • info@leartik.eus • www.leartik.eus

# Ahal Dugu Euskadi: "Zornotzako zentroa 160 haur hartzen ari da, baina 40 hartzeko lekua du"

Ikasgelak eta jantokiaren zati bat logela moduan egokitu dituztela salatu zuen Ahal Duguk Bizkaiko Fiskalaren bulegoan uztailaren 26an aurkeztutako idatzian. Era berean, egoerari berehalako irtenbidea bilatzeko eskatu dute

## ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Zornotzako adin txikikoen zentroaren inguruan idatzi bat aurkeztu zuen Ahal Duguk Bizkaiko Fiskalaren Bulegoaren erregistro orokorrean, uztailaren 26an. Gaineratu dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean dagoen zentroan haur batzuk lurrean lo egiten ari dira. Egoerari "berehalako" irtenbidea emateko exijitu dio Ahal Duguk Bizkaiko Foru

hartzeko" eskatu diote fiskaltzari. Ahal Duguko ordezkariak azaldu dutenez, "haurren eta nerabeen babeserako legearen urraketa larriak gertatzen ari dira zentro horretan". Bizkaiko Foru Aldundiaren "pasi-

botasun onartezina" kritikatu du De Madariagak.

## "Hausnarketa partekatua"

Estatuko eta Euskadiko erakunde guztiekin egoeraren inguruko

"hausnarketa partekatua" egitea eskatu du Ahal Duguk, "ibilbideak, zerbitzuak eta baliabideak berrikusteko, egungo gizarte egoerara egokitzeko eta horien bidez haurrak babesteko".



Zornotzako sarreran dago adin txikikoen zentroa.

## Estatuko eta Euskadiko erakundeekin egoeraren inguruko "hausnarketa partekatua" eskatu dute

Aldundiari, eta "haurrei harrera ona eta duina bermatzea". Eneritz de Madariaga Ahal Dugu alderdiko batzarkidea eta Tinixara Guanche legebiltzarkidea izan ziren idatzia erregistratu zutenak. De Madariagaren esanetan, "neurriak



Etxanoko bidegorria.

## Txolonetik Etxanora doan bidegorria prest dago oinezko zein txirrindularientzat

### ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Etxanoko bidegorriaren bigarren fasea amaituta (La Bañera-Andra Mari), Txolonetik Etxanora joateko aukera dute oinezkoek eta txirrindulariek. Lan hauei esker, zornotzarrek ibilbide hau seguruago egin ahal izango dutela azaldu dute udal arduradunek. Obra honetan udalak 500.000 euroko inbertsioa egin du.

## Zornotzarrek ibilbide hau seguruago egin ahalko dutela azaldu dute udal arduradunek

## Jende nahikoa batuz gero, Izurtzan euskara ikastaroak antolatuko dituzte

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Udalaren eta UEMAren lankidetzari esker, behe, erdi eta goi mailako euskara ikastaroetan parte hartzeko aukera dago Izurtzan. Irailaren 22ra arte eman daiteke izena udaletxean. Taldeak sortzeko gutxieneko kopurura heltzen badira, klaseak herrian bertan eskainiko dituzte. Bestela, euskaltegiara bideratuko dituzte. Euskara ikasteko laguntzak inoiz baino handiagoak dira: matrikularen %80 diruz lagunduko dute.

## Anbotoko Dama nagusien elkarteak irteera antolatu du Santoñara

### ATXONDO • M.Z.

Anbotoko Dama nagusien elkarteak irteera antolatu du Santoñara, irailaren 22rako. Santoñan kontserba-industria bisitatu eta bazkaldu egingo dute. Ostean, Laredon pasatuko dute arratsaldea.

Autobusa 8:45ean irtengo da, Arrazolatik. Ondoren, Axpetik pasatuko da, eta 9:00etan Apatako herritarrak jasoko ditu. Izen-ematea irailaren 17a baino lehen egin beharko da nagusien etxean.

## 25.000 euro Legañoako irisgarritasuna eta Iturritzako arrapala hobetzeko

2018ko aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 150.000 euroekin zer egin erabaki dute berriztarrek



Legañoako irisgarritasuna hobetuko dute.

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 150.000 euroekin zer egin erabakitzeko aukera izan dute berriztarrek. 25.000 euro Legañoako irisgarritasuna eta Iturritzako lehen arrapala egokitzeko erabiliko dituzte. 65.000 euro umeen txin-txaun guneak konpontzeko eta 15.000 euro eskolako pabilioiaren goiko sarrera estaltzeko.

Bestalde, 12.000 euro etxe eta baserrien zenbakiak ipintzeko bideratuko dituzte, eta 20.000 euro Sarrigoitiarako bidea konpontzeko.







Argiñetako Kofradiak udalaren izenean jarri gura du basiliza.

## Argiñetako Kofradiak basiliza Elorrioko Udalaren izenean jartzea proposatu du

Irailean egingo den osoko bilkuran euren eskaria eztabaidatzea dute helburu Argiñetako Kofradiako kideek

**ELORRIO** • J.G./M.Z.

Abuztu hasieran Argiñetako Kofradiako kideek basiliza Elorrioko Udalaren izenean jartzea proposatu zuten. Kofradiako kideek prentsa ohar bidez jakitera eman zuteenez, udalak basiliza zaharberritu, mantendu eta inguruari garrantzia ematea da helburua, "baselizaren eta inguruko lur eremuaren erabilera kofradiari usufuktuan ziurtatuz, kultu erlijiosoaren prak-

tika babestuz eta, gainera, inguru guztia babesteko plana ezarriz". Hori horrela, iraileko plenoan euren eskaria aurkeztuko dutela jakitera eman dute.

**Udalak basiliza zaharberritu, mantendu eta inguruari garrantzia ematea da helburua**

**Dagoeneko basilizako teilatua konponduta dago udalak emandako 50.000 euroko laguntzari esker**

Bestalde, Argiñetako Kofradiak kaleratutako idatzian jakitera eman duenez, dagoeneko basilizako teilatua konponduta dago udalak emandako 50.000 euroko diru-laguntza bati esker. Beraz, elizpea konpontzea falta da.

# Gremioen gida

anboto

**Zurgintza**

**ATERPE ARBOTZAL**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalatzaila baimendua

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

**Iturgintza**

**Mallabiena**  
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza  
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
[ubide@euskalnet.net](mailto:ubide@euskalnet.net)  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

[info@aldekoaotalora.com](mailto:info@aldekoaotalora.com)  
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA  
946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**  
944 071 791

**Garbiketa**

**AZKARGI GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215

**Dekorazioa**

**JAIO** barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
[info@jaiobarnizatuak.com](mailto:info@jaiobarnizatuak.com)  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# GAURSA

CAR WASH



## PREMIUM GARBIKETA TUNELA AUTOZERBITZU GARBIKETA-BOX ETA XURGAGAILUA



Arriandi Auzoa, 12 Iurreta (Bizkaia) Renault eta Nissan Gaurisa instalazioetan



ANBOTO.

## Hareek denporak!

### Izurtzako radarrak nork jarri zituen jakin barik

Radarrak ezartzeak zeresan handia eman zuen 2010eko otsailean Izurtzan. Izan ere, Durango eta Gasteiz lotzen dituen N-623 errepidean radarrak agertu ziren. Bide ondoan jarritako kartelak radarrak iragartzen zituen: "Errespetatu Izurtzako herriarrak. Zaindu zure abiadura". Guztien harridurarako, Herrizaingo Sailak esan zuen radar haiek ez zirela Jaurlearitzarenak. Lorea Muñoz zen sasoi hartan

Izurtzako alkatea, eta gaur egun ere bada. "Udalak ez daki ezer gai honi buruz, eta ez ditu radarrak ipini", azaldu zuen orduan Muñozek. Hala ere, udalak sarritan eskatu dio Jaurlearitzari ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak hartzeko. Benetakoak izan ez arren, egun batzuetan radar haiek eragina izan zuten eta ibilgailuek abiadura moteldu zuten. Euren funtzioa bete zuten seinale. J.G.

## Sei hankako mahaia

Idoia Agorria Martínez  
PSE-EE



### Mugikortasuna hobetu

Gure udalerrian dagoen TAO sistema Mugikortasunaren Planaren barruko jardueretako bat da. Durangoko mugikortasuna hobetzeko urte luzez lanean aritu diren lagun ugariren emaitza. Gure udalerriko mugikortasuna hobetu nahi dugun lagun askok hartu dugu parte horretan, Durango udalerrira hobe eta atsegina izan dadin, eta lehentasuna eman diezaion oinezkoari, ondoren bizikletari, eta, azkenik, autoari.

Gure udalerrian, TAO ezarri zen, aparkatzeko zegoen arazo larriari aurre egiteko, azalean aparkatzeko plazak txandaka zitezten sustatzeko, ekonomia edo merkataritzako jarduera dela-eta horrela behar zuten alderdietan.

Mugikortasunaren Planaren barruko beste tresna bat da, eta Durango eraldatzen ari da, norabide bakarrekoez, oinezkoentzako guneak, eta semaforoak kentzeko, biribilguneak jartzeko eta abiadura mugatzeko ekimenak bezala. Sistema "bizia" da, eta behar bezala zaindu eta jagon behar da, funtzionaltasuna hondatu ez dadin. Hortaz, abian jarri zenetik, elementu batzuk aldatu dira, funtzionamendu hobe izan dezan.

Uste izatekoaenez, aldirietako auzoetan, gainezka egoteko nola-halako efektua izaten da. Haietako batzuetan, disuasiozko aparkalekuak jarri ziren, baina gehiago behar dira, hainbat tokitan. Orain proposamen berria lantzen ari gara, udalerraren barruko zirkulazioa gutxitzeko eta haren presioa arintzeko. Proposamen horretan, plaza gehiago eskainiko ditugu disuasiozko aparkalekuetan, gure udalerrira lanera edo erosketak egitera etortzen diren lagunentzat.

## Durungaldea asteen

### Arrautza baten tamainako txingor-aleak bota zituen martitzenean Durungaldean

**Durungaldea** | Martitzenean mendebaldetik sartu zen denboraleak txingor zaparrada galanta ekarri zuen, eta, besteak beste, Zornotzan igarri zen horren eragina. Muniketan arrautza baten tamainako txingor-aleak bota zituen, irudiotan ikusi daitekeenez. Denboraleak prezipitazio gehien utzi duen herrietako bat izan zen Zornotza. 16:20an Euskalmetek jasotako datuen arabera, 10 minututan 9 litro bota zituen metro karratuko.



### Zornotzako Udalak trafikoa etengo du Gudari kalean asteburuetan eta jaiegunetan

**Zornotza** | Zornotzako Udalak trafikoa etengo du Gudari kalean asteburuetan eta jaiegunetan. Oinezkoen segurtasuna handitzeko, Gudari kaleko 1 eta 11 zenbakien arteko tartean barikuko 17:00etatik domekako 22:00ak arte etengo dute trafikoa. Jaiegunetan eta egun berezietan 24 orduz egongo da etenda. Larrialdi zerbitzuetako ibilgailuak baino ezingo dira sartu.



### Durangoko Fashion Gauerako modelook aukeratzeko castinga egingo dute

**Durango** | Dendak Bai merkatarien elkarteak casting bat egingo du irailaren 28ko Durango Fashion Gaua desfilearen hirugarren edizioan parte hartuko duten modelook aukeratzeko. Desfile horretan Durangoko saltokiek 2018ko udazken-negu denboraldirako proposamenak aurkeztuko dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, desfile "parte-hartzailea" izatea dute helburu. Horretarako, irailaren 6an, eguena, casting bat egingo dute modelook aukeratzeko. Hitzordua Udal Euskaltegiko Berbagune gelan jarri dute, 17:00etan. Ekimena herritar guztiei zuzenduta dagoela azaldu dute, "gizonak eta emakumeak, umeak, adin eta neurri guztietakoak".

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**  
**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotezia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**hitz** liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

HELDUENTZAT  
**BIHOTZEAN**  
DARAMAGUN MUNDUA  
Maite Darceles  
2018

UME ETA GAZTEENTZAT  
**ARRARIK ARRA**  
Leo Lionni  
2018

MUSIKA  
**ANITA PARKER**  
Anita Parker  
2017

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

# Ostala- ritza gida

anboto

 **Zornotza**



**IBARRA SAGARDOTEGIA**  
Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA  
**Tel.: 946 731 100**  
www.ibarra-sagardotegi.com

 **Durango**



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 811 384**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Durango**



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO  
**Tel.: 946 810 003**

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.

 **Durango**



**PLATERUENA** Kafe Antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus**

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!

 **Muxika**



**ASTEI JATETXEA**  
Muniketa auzoa 8, MUXIKA  
**Tel.: 946 732 318**

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak...  
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

 **Durango**



**IBAIZABAL KAFETEGIA**  
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO  
**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.


# Estetika gida


anboto

 **Ile-apaindegia**



**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

 **Ile-apaindegia**



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA  
Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
**Tel.: 946 216 491**

## Gomendioak

**ILEA** | Uda ostean, normala izaten da ilea gehiago jaustea, uda sasoko hainbat faktoreren eraginez: eguzkia, kresala, igerilekuetako kloroa, ur gezetako metal pisutsuak, izerdia... Gainera, adituen arabera, opor osteko estresak ere eragin dezake. Ezin ahaztu, bestalde, udazkenean ilea berritzeko prozesua biziko dugula, arbolek hostoekin egiten duteen eran. Beraz, zer egin genezake uda ostean gure ilea zaintzeko eta ahalik eta gutxien jausteko?

-Sarri garbitu: Itsasoko eta igerilekuko uretan egon eta gero, ilea garbitzea komeni da. Askok uste dute bainatu eta gero ez dela beharrezkoa dutxan garbitzea, baina adituek hori ez dela egia diote.

-Masajeak eman: Txanpua ematen dutzun bitartean komenigarria da buruan masaje bat ematea, zirkulazioa estimulatzeko eta ilea erortzea atzeratzeko balio baitu.

-Ilea berez sikatu: Lehorgailuek, plantxek eta antzeko tresnek ileari erasan egiten diote, eta ahal izanez gero, ilea

aire librean sikatzea gomendatzen da. Lehorgailuak erabiliz gero, burua aurretik eta beherantz makurtuta egin.

-Gauetz ilea orraztu: Gauero, ohera joan aurretik, ilea orraztea izan ahal da berau zaintzeko modu bat. Eguneko zikinak kentzeko balioko du. Jesarrita eta burua beherantz duzula egin beharrezkoa. Gainera, segidan masaje labur bat emanda, zirkulazioa hobetuko da.

-Bitaminak eman: Udazkenean eta udaberrian bitaminak emanda, buruazaleko zirkulazioa hobetza eta ilea indartzea lortuko da.



# JAIIAK!

ELORRIO 2018

2018

# ferixa nausikoak

irailak 1-9



## Elorrixoko Ferixa Nausikoak: libreak, alaiak eta euskaraz!



INDARKERIA  
MATXISTARI EZI!



ERASO  
SEXISTARIK  
EZ!!!



EZETZA, EZETZA DA!!!

**Elorrioko jaiak 2018****Abuztuak 31, barikua**

- 18:00** ARETO FUTBOL TORNEOA.  
**23:00** KONTZERTUAK:  
 Arkada Social eta Hexen (txosnagunea)  
**00:30** DJ BULL.

**Irailak 1, zapatua**

- 11:30** Umeentzako antzerkia: Kanean uso, etxean otso (Txosnagunean).  
**12:00-14:00 / 17:00 - 20.00** Haur parkea eta gazteentzako skate eskola.  
**12:30** Bitsaren jaia.  
**18:00** 12-15 urte bitartekoen kuadrillen arteko jolasak.  
**18:30** Buruhandiak.  
**19:00** Durangoko Sugarri fanfarrea.  
**19:15** EGUNDO I- KALEZ KALE KANTUAN.  
**20:00** Txupinazoa eta pregoia (Txintxirri ikastola, Gaztetxea eta Besaide Dantza Taldea).  
**22:15** Suzko zezena.  
**23:00** Danborrada (50.urteurrena) eta Durangoko Sugarri Fanfarrea.  
**23:30** Kontzertuak: Nevadah - John Dealer & The Coconuts.  
**00:30** Los Charros mariatiak.  
**24:00** JKIN ALONSO.

**Irailak 2, domeka**

- 10:00** Abere eta nekazaritza azoka.  
 Goizean txistulariekin kalejira  
**13:00** EINGO TALDEA.  
**18:00** Afizionatuen pilota partiduak.  
**18:00** Umeen danborrada.  
**19:15** Ballet Joven Essta (Errusia).  
**20:30** Fernando Valsega & Exilio New Tango. Show Tango Argentino.  
**20:30** Tako Mexikarrak.  
**22:15** Suzko zezena.  
**22:30** Fernando Valsega & Exilio New Tango. Show Tango Argentino.

**Irailak 3, astelehena**

- 14:00** Kuadrillen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa.  
**16:30** Sokolé; animazioa perkusioagaz  
**18:00** Kuadrillen arteko jaitziera bufanda erraldoiagaz eta diskoteka mugikorra bazkal ostean.  
**18:30** Korapilatzen koreografia bortizkeria sexistaren aurka.  
**18:45** 16 urtetik gorakoen kuadrillen arteko jolasak.  
**19:00** Berriketan, Txapalpa & Flamenco.  
**20:00** DJ FESTA: Oihan Vega.  
**21:30** Playback eta karaokea.  
**22:15** Suzko zezena.  
**22:30** Ordago Folk Taldea.  
**22:30** DJ FESTA: Oihan Vega.  
**23:00** Bitsaren jaia (Txosnagunean).

**Irailak 4, martitzena**

- 12:00-14:00 / 17:00 - 20.00** Haur parkea eta gazteentzako skate eskola.  
**18:00** Buruhandiak.  
**18:00** Nesken futbol partiduak.  
**19:00** Deabru beltzak: Denboran salto, haur animazioa.  
**20:00** Gorra Knörren jaialdia (Txantxibiri kalean)

**Irailak 5, eguaztena**

- 16:30** Umeentzako jolasak.  
**17:00** Ginkana.  
**18:00** Buruhandiak.  
**18:00** Txokolatada.  
**18:30** Ohorezko mailako torneo solidarioa.  
**18:30** Bambalas zirkua, malabareak, kontortsionistak...

**Irailak 6, eguena**

- 18:00** Areto futbol triangeluarra.  
**18:00** Yoga tailerra (Txosnagunean).  
**19:00** Herrixa dantzan (Txosnagunean).  
**21:00** LIV. Idi proba txapelketa.  
**22:00** Kontzertua: Revolta permanent.

**Irailak 7, barikua**

- 09:00** Elorrio zirkularra (Plaza-San Agustin-Berriozabaleta-Leiz-Lekeriketa-Argiñeta-Zenita-Lourdes-Angio-San Anton-Aldatsekua)  
**11:30** Hildako jubilatuen omenezko meza.  
**13:00** Kopaua Elorrioko jubilatuentzat.  
**16:00 - 20:00** Haur parkeak.  
**18:00** Areto futbol partiduak.  
**18:00** Street Dance tailerra.  
**18:30** Kontzertua: Arantza eta Pantxo.  
**19:00** Lagunarteko partiduak.  
**19:00** Buruhandiak.  
**19:30** "Babo Royal" Ganso & Cia.  
**21:00** Chicas de la Habana.  
**21:00** LIV. Idi proba txapelketa.  
**22:15** Suzko zezena.  
**23:00** Zea Mays eta Koban.  
**23:30** Chicas de la Habana.  
**00:30** Little Martin Selektah.

**Irailak 8, zapatua**

- 08:00** Sukalki eguna.  
 Goizean 3R AZOKA  
**12:00-14:00 / 17:00 - 20.00** Haur parkea eta gazteentzako skate eskola.  
**17:15** Gazteok fanfarrea.  
**18:00** Karrozen jaitziera.  
**18:00** Txokolatada.  
**18:30** DJ URTZA.  
**19:00** Bentzaharreko mutiko alaiak.  
**20:30** Berbena: Aliron.  
**21:00** LIV. Idi proba txapelketa.  
**21:00** Coro Rossini: ZARZUELA ON AIR.  
**22:15** Suzko zezena.  
**22:30** Pachamama (dantza, musika, sua).  
**23:00** Berbena: Aliron.  
**23:00** DJ JO TA TXO (Txosnagunean).  
**23:00** Kontzertua: Stronger Together eta N2OGU.  
**23:30** DJ Naiara & DJ Jokin Alonso.

**Irailak 9, domeka**

- Goizean "Elorrioko kulturak dasta ditzagun" ELKARTASUNAREN JAIALDIA  
**13:00** Herri kirolak.  
**18:00** Bertso saioa.  
 Txaber Altube  
 Gorra Pagonabarraga  
 Miren Artetxe  
 Maialen Arzallus  
**19:30** Sonakay (Flamenkoa euskaraz).

**Irailak 10, astelehena**

- 21:00** LIV. Idi proba txapelketa.



**NUKLEO**  
ileapaindegia

**94 658 29 96**  
Nizeto urkizu 14 behea  
48230 Elorrio Bizkaja



**HOBETU**  
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es  
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2  
P.K./ 48230 Elorrio  
www.hobetu.es



**UNAI GARAY**

ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

# Herriko hiru elkartek jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzte aurtengo Ferixa Nausikoak Elorrian

Aurtengo Ferixa Nausikoetan gazteentzako egitaraua indartu gura izan dute; Horrez gain, jai ez sexistak bultzatzeko deia egin dute udaleko kideek

## JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten mende erdi bete duten Txintxirri Ikastolako eta Besaide dantza taldeko kideek eta 30 urte bete duen Gaztetxeko lagunek botako dute Ferixa Nausikoetako txupinazoa. Jaiei hasiera emango dien ekitaldia bihar izango da, 20:00etan.

Hala ere, jaiak ofizialki txupinazoagaz hasiko dituzten arren, aurreko egunetik jai-giroan murgilduta egongo dira Elorrian. Izan ere, zenbait jarduera abuztuaren 31rako antolatu dituzte, Gaztetxean eta Txosnagunean, besteak beste. Ferixa Nausikoek irauten duten egunetan 40 emanaldi baino gehiago egongo dira. Elorriko Udaleko teknikaria den Iñaki Larrañagak jakitera eman duenez, jarduerarik gehienak herriko plazan izango dira, baina txosnagunean, Urarkan eta Aldatsekuan ere hainbat ekitaldi egongo dira.

## Gazteei bideratutako jaiak

Bestalde, jaiak aurkezteko ekitaldian, aurtengo Ferixa Nausikoetan gazteentzako egitaraua indartu gura izan dutela jakitera eman zuten. "Gazteekin lanketa berezia egin dugu, beraientzat espazio eta ekitaldi gehiago egoteko asmoz", adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak. Hori horrela, hainbat ekintza antolatu dituzte, skate eskola eta gaztetxoentzat DJa, besteak beste

Horrez gain, urtero lez jai ez sexistak alde lanean dabilzala jakinarazi zuten aurkezpenean. Hori horrela, protokolo bat sortu dute.

## Azoka

Bestalde, jaiei izena ematen dien azoka irailaren 2an egingo da, 10:00etan hasita. Nekazarien, abeltzainen eta artisauen eskutik kalitatez gorenko produktuak dastatu, usaindu, ikusi eta erosteko aukera eskainiko du Elorriko Ferixa Nausikoetako azokak beste urte batez.

Bertan, herriko nekazari, abeltzain eta artisauetz gainera, Durangaldeko eta Euskal Herriko beste hainbat ekoizle ere parte hartuko dute. Guztira, nekazarien 53 postu egongo dira, artisauen 16 postu, txosna bi taloekin eta ENEEK produktu ekologikoekin jarritako kontainerra. Horrez gain, ganadua ere egongo da.

## Kuadrillen arteko bazkaria

Astelehenean, berriz, urtero legez, herriko kuadrilla guztiak batzen dituen bazkaria egingo dute Aldatsekuan. Gainera, tortilla txapelketa ere egingo dute bertan. Arratsaldean, 18:00etan, kuadrillen jaitsiera egingo dute.



Irailaren 1ean txupinazoa jaurtiko duten elkarteetako kideak udaletxeko balkoian



Jaiei izena ematen dien azoka domekan egingo dute.

**Azokan nekazarien 53 postu, artisauen 16 postu, txosna bi taloekin eta ENEEK produktu ekologikoekin jarritako kontainerra egongo dira, besteak beste**



**HOBEGIN**

Enpresen Kudeaketa  
ISO 9001 - Kalitate kudeaketa  
ISO 14001 - Ingurumenaren kudeaketa  
ISO 45001 - Segurtasuna eta laneko osasuna



**SEGURdades**  
Consultores en protección de datos personales  
Datu pertsonalen babasaren inguruko aholkulariak

**Datu pertsonalen babesa**  
- DBLO eta IGMEZLrako EGOKITZAPENA ENPRESAN

Elorrio, Padura 8, Beheko C - Eibar, Azitain Pol. 3K, 2I - Tlf.: 943849091 / 673521231  
info@hobekin.eus - www.hobekin.eus

## AZKARGI GARBIKETAK

AUZO ELKARTE,  
GARAJE ETA OBRA  
OSTEKO GARBIKETAK

Goietia, 46 - 2 esk.  
ELORRIO  
Tel.: 615 791 215



- TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK
- Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen dutelarik.
- CAP ikastaroak profesionalentzat
- Teoriko orokorra euskaraz ONLINE

**HEMEN GAUDE:**

Urarka kalea, 20 • Tel.: 946 583 441 • ELORRIO

# FERIXA NAUSIKOAK

## 2017

**Tanger**  
JATETXEA  
Ibaikua, 8. ELORRIO  
Tel.: 946 820 052



**KOTXERO**  
JATETXEA



San Pio X, 42 ELORRIO  
Tel.: 94 623 17 97

**PORTALEKUA**



**EUSKAL PRESOAK  
PORTALEKURA**

Erreka, 34  
Tel.: 946 58 31 77

**CAFETERIA**

**IRISTARRI**  
"Enri"

Tel.: 946 583 119  
Elorrio (Bizkaia)

**Guria**  
JATETXEA

EGUNEKO MENUAK  
HAINBAT MENU BEREZI  
OSPAKIZUNAK

Ibaikua, z/g.  
Tel.: 94 623 17 95  
ELORRIO / BIZKAIA

**LEKU-EDER**  
TABERNA



Esteibarlanda, 5  
ELORRIO  
Tel.: 946 820 270

**XELAI**  
*Taberna*

HANBURGESAK  
ENTSALADAK  
RAZIOAK  
PIZZAK

ESKAERA *Eta*  
ERRESERBAK  
94.655.02.66

Nizeto Urkizu, 37-39  
48230 ELORRIO  
Bizkaia

www.xelaitaberna.com

*Batzoki Elorrio*



PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK · RAZIOAK  
Eguneko menua eta asteburuetan menu bereziak  
Urarka, 13 behea · 946 855 656 · ELORRIO

TABERNAK eta JA-  
TETXEAK





## "Jendea aldatu egin da, baina Gaztetxearen nortasuna ez da galdu"

Gorka Igartiburu eta Jokin Arabiourrutia Elorriko Gaztetxeako kideak dira

**GAZTETXEA** • JONE GUENETXEA

**Pozik zaudete Ferixa Nausiko jaietan txupinazoa botatzeagatik?**

**Gorka Igartiburu:** Bai, herriaren aldetik azken 30 urteotan egindako lanaren errekonozimendu bat da.

**Jai bereziak izango dira Gaztetxearentzat?**

**Jokin Arabiourrutia:** Ez dut uste bereziak izango direnik. Txupinazoa garrantzitsua da, baina jaira begira urtero legez saiatuko gara pertsona guztientzat eskaintzak egiten eta herri guztiarentzat atekak zabalik edukitzen.

**Jaietan zelan aldatzen da Gaztetxearen egunerokoa?**

**J.A.:** Kontzertuak antolatzen ditugu eta barran txandaren bat egitea ere tokatzen zaigu.

**G.I.:** Txosnagunean eta Gazte Egunean laguntzen saiatzen gara.

**Hiru hamarkadatan zein garapen izan du Gaztetxeak?**

**J.A.:** Sasoiak aldatu egin dira. Iturri kultur etxea dagoen eraikinean hasi ginen. Ondoren, Tola jauregira joan ginen, eta orain kultur etxean dugu lokala. Jendea aldatu egin da, baina Gaztetxearen nortasuna ez da galdu.



## "50. urteurrenean, ikastola sortu zutenak gogoratzea izan da hunkigarriena"

Alazne Igartua eta Edur Amilibia Txintxirri ikastolako ordezkariak dira

**TXINTXIRRI** • J.G.

**50. urteurren ospakizuna txupinazoz biribilduko duzue.**

**Edur Amilibia:** Beste talde batzuekin txupinazoa partekatzea ideia oso ona iruditu zaigu eta oso pozik gaude. Denok elkarrekin indar gehiago egingo dugu.

**Mende erdi bete du Txintxirrik. Zelan amaitu duzue ikasturtea?**

**Alazne Igartua:** Hiruzpalau ekitaldi antolatu ditugu 50 urte hauek gogoratzeko. Bertan lanean aritu ziren denak gogoratu gura izan ditugu. Urteurre-

neko azken ekitaldia haxe izango da, txupinazoa jaurtitzea.

**Ikastolaren sorztaileak ere oroitu dituzue.**

**E.A.:** Oso polita izan da. Argazki erakusketak eta beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu. Ikastola sortu zutenak gogoratzea izan da hunkigarriena, hasieran indarrez bultzatu zutenak. Emozio handiko unea izan zen guretzat, eta baita eurentzat ere.

**Zelan botako duzue txupinazoa hiru talde egonda?**

**A.I.:** Prego bakarra egitea da asmoa, eta agian zatika irakurtzea, jaien hasiera ez luzatzeko.



## "Pozgarria da herriarentzat lan egiten duten elkarteekin ematea hasiera jaiei"

Malen De la Fuente eta Matxalen Fondado Besaide dantza taldeko kideak dira

**BESAIDE** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

**Besaide Dantza Taldearen 50 urteurrenean txupinazoa jaurtitzeko aukera izango duzue.**

**Malen De La Fuente:** 50 urte hauetan egin den lanagatik saritu dute taldea elorriarrek, eta oso pozik gaude Elorriko Ferixa Nausikoei hasiera emateko aukera dugulako.

**Matxalen Fondado:** Hala ere, badakigu sari hau ez dela geurea bakarrik. 50 urte hauetan Besaiden egon diren kide guztiena ere bada. Baita taldeko txistulariarena, trajeak josten ibili diren emakumeena eta abarrena ere. Guztiei eskerrak eman gura dizkiegu.

**Espero zenuten txupinerak izatea?**

**M.D.:** Egia esan, bai. Bagenekien beste elkarte batzuen urteurrena ere bazela, baina ez genekien zelan egingo zuten. Hala ere, jaietan zerbait egiteko aukera eskainiko zigutela espero genuen.

**Zuentzat zer suposatzen du Txintxirrikoekin eta Gaztetxearekin udaletxeko balkoira igotzea?**

**M.D.:** Helburu desberdinak ditugu eta bakoitza leku batetik gatoz. Gainera, elkarte bakoitzak bere eremua du. Hala ere, pozgarria da herriarentzat lan egiten duten elkarteekin batera udaletxeko balkoira igo eta jaietara hasiera ematea.

**zaindu**  
albaitaritza

zaindu.albaitaritza

Ibarra, 13 - 48230 ELORRIO / Bizkaia · Tfno. 946 820 494  
www.zaindu.net

**ARKI  
TEK  
SAN**

ARKITEKTURA ESTUDIO TECNICOA

WWW.ARKITEKSAN.COM  
622 745 419  
NIZETO URKIZU 12, ELORRIO  
INFO@ARKITEKSAN.COM

EITITE AZTERKETA 259€TIK AURRERA!

**BIODANZA  
ELORRIO**

ASTEARTETAN  
TXINTXIRRI IKASTOLA  
18:30 - 20:30

Bideratzailea  
**Mentxu Arjonilla**  
Irakasle tituluduna  
626 661 292  
mentxubiodanza@hotmail.com

**AXA**

reinventando / los seguros

**AMALUR ASEGURUAK, S.L.**  
amalur.aseguruak@agencia.axa.es  
www.amalur.agenciaaxa.es

**AXA ELORRIO**  
Berrio-Otxoa, 4 ELORRIO  
946 584 703

**AXA DURANGO KURUTZIAGA**  
Kurutzia, 26 DURANGO  
946 816 022



Mila Royo (erdian) testigua hartuko dutenekin: Gorra Martin 'Kalero', Andrea Basabe, Olatz Bikuña eta Amaia Basabe.



Goian, 2015eko Elorrioko danborradako irudi bat.

## Urrezko ezteiak ospatzeko prest dator Ferixa Nausikoetako danborrada

50 urte beteko ditu umeen danborradak domekan; bezperan, helduen danborradak beteko du plaza

### DANBORRADA • AITZIBER BASAURI

1968ko Ferixa Nausikoetan entzun ziren lehenengoz danbor hotsak Elorrion. 50 urte izango dira umeen danborrada estreinakoz kalera irten zena, eta urteurren berezi horrek sorpresaren bat ekarriko du. Urrezko ezteiak bete direnean, gainera, testigua emango du Mila Royok, 28 urtean Elorrioko danborrada antolatzen jardundakoak. Andrea Basabek, Olatz Bikuñak, Gorra Martin 'Kalero'-k eta

Amaia Basabek hartuko dute ardura. "Negarrak ere irten zidan iaz, nigana etorri eta eurek jarraituko zutela esan zidatenean", dio Royok. Urrezko ezteiak egitean danborrada antolatzeari utziko ziola esana zuen berak, "baina, ahal dudan heinean lagunduko dut", gaineratu du.

1968an irten zen umeen danborrada lehenengoz, eta hurrengo urtean helduena, Royok gogoratu duen moduan. Urte hauetan guztietan antolakun-

**1968an irten zen umeen danborrada lehenengoz Elorrioko Ferixa Nausikoetan; hurrengo urtean irten zen helduena**

tzan jardun du berak. "Ez neukan astirik danborra jotzen ikasteko; arropak, materiala, entseguak... Seme-alaben bitartez bizi izan dut Elorrioko danborrada batez ere", adierazi du. Behin irten da plazara, 2000. urtean. "Sei urtean egin barik egon ostean, 1999an umeen danborrada berreskuratu genuen eta, horretarako, Elgetan ibili nintzen ikasten, gero umeei irakasteko", esan du. Hala ere, tarteka hartzen du danborra entseatzeko, urduritasuna kentzeko. Badu amets bat Royok: "Ondo banago, datorren urtean plazara irten eta danborradan parte hartu gura nuke". Danborradak ea beste horrenbeste urte egingo dituen galdetuta, urtez urte ikusiko beharko dela dio, baina baduela itxaropena gazteengan. Emozionatuta bizi du danborrada Royok. Hori eta Sukalki Eguna bizi ditu bereziki jaietan. Bihar irtengo da ehundik gora lagun batzen duen helduen danborrada. Umeen txanda etzi izango da.

**AROTZERIA  
OROKORREAN**

**ONDO PASA JAIK!**

**Aratz Salazar Bilbao**  
Telf. 647 21 07 88 • arotxin@gmail.com  
ELORRIO 48230 Bizkaia

**MAPFRE**  
Pili Ardanza - Jon Zubia

**30 urte baino  
gehiagoko esperientzia**

Bezero bakoitzaren  
perfilera egokitzen  
gara profesionaltasun  
eta diskrezioz

Kanpokale, 10 ELORRIO  
Tel.: 94 658 24 48  
pardanz@mapfre.com  
www.mapfre.com/oficinas/4838

Elizburu, 46-48  
Tel.: 94 682 10 79  
Tel./Faxa: 94 682 00 50  
ELORRIO (Bizkaia)

**ALBAÑILERIA**

**KURUTZONDO S.L.**

**EIBAR**

**Olabarria**  
AUTOBUSAK  
Betsaide Kalea, 11 - ELORRIO  
946 231 647 - 607 410 621

**Geka 20**  
arkitektura

**Silvia Urrutxi  
Arkarazo**

Errekakale 20, 2. A - Elorrio  
Tel 946 231 847  
699 356 607  
646 955 778

**SERIGRAFIA  
BoroBil**

Berriozabalbeitia, 6  
Tel.: 946 820 532

**PRINTS**  
INPRIMAKETAK  
6 5 8 7 5 6 5 2 2

arT-shirt

**Beristain**  
NEKAZAL TRESNAK

Baso-lorazain eta baserriko tresnen  
salmenta, konponketa eta mantenua

946 231 803 [www.beristain.eus](http://www.beristain.eus)  
OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 - ELORRIO

# "Jaietan badagoela aniztasuna eta jaiak denontzat direla islatu gura izan dut kartel honen bidez"

Sabina Aizpururen kartelak irabazi du 2018ko Ferixa Nausikoetako lehiaketa; ANBOTOk 500 euroko saria eman dio irabazleari

**KARTELA • JONE GUENETXEA**

**Pozik zaude sariagaz?**

Sorpresa handia izan zen niretzat. Oso pozik nago herriko jaiak nik sortutako kartelak iragarriko dituelako.

**Zer islatu gura izan duzu kartel horregaz? Zelan interpretatu dezakegu?**

*Diseinu Integrala ikasten nabil Madrilen. Horren barruan diseinu grafikoa eta barne diseinua sartzen dira. Bestetik, moda diseinua*

*Jaietako ekitaldien guztien artean, gauetako kontzertuak, azoka, danborrada... gustatzen zaizkit gehien. Denetara joaten gara*

Jaiak denontzat direla irudikatu gura izan dut. Jaietan aniztasuna dagoela eta jaiak denontzat direla.

**Horretarako, zein elementu erabili duzu?**

Kartelean ikus daitekeen legez, Feria dela-eta barazkiak agertzen dira, animaliak ere bai. Berdintasuna presente izateko, puntu morea ere agertzen da. Atsoen tronpetak, astoak eta denetik. Pertsona

bakoitzagaz nahaste bat egin dut aniztasun hori transmititzeko.

**Sortze prozesua zelakoa izan da?**

Bozeto batzuk eskuz egin nituen, eta horren ostean ordenagailuagaz egin dut lan.

**Zenbat bider aurkeztu zara kartel lehiaketara?**

Lehenengo aldia izan da hau, eta sorpresa izan da.

**Diseinu arloan diharduzu?**

Diseinua ikasten nabil, eta hemendik aurrera gehiagotan parte hartuko dudala uste dut. Diseinu Integrala ikasten nabil Madrilen. Gradu bikoitza da. Alde batetik, horren barruan diseinu grafikoa eta barne diseinua sartzen dira. Bestetik, moda diseinua.

**Madrilen ikasi arren, jaietan Elorri egongo zara. Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuna?**

Herritarren artean sortzen den giroa da gehien gustatzen zaidana. Adin guztietako jendea batzen gara jaietan, eta hori oso polita da. Kuadrillen eguna, esate baterako, oso polita da. Ekitaldien artean, gauetako kontzertuak, azoka, danborrada... denetara joaten gara.

**Zine arloan baduzu esperientzia. Iratxe Mediavillaren Argi filmean parte hartu zenuen. Zineak zein espazio betetzen du momentu honetan zure bizitzan?**

Txikitatik gustatu izan zait antzerkian aritzea, eta aukera sortu zenean gustura aritu nintzen. Hala ere, orain mundu hori alde batera gelditu da.



Sabina Aizpuru kartel irabazleagaz



**FUNDACIÓN EROSKI**  
zurekin

# Gonbidatu zuen Ikastetxea!





Energia hazteko



EROSKI  
FUNDACIÓN  
ZARAUZ  
OSASUNTSUA



# Taula gainean zein kalean, musika eskaintza zabala egongo da Elorrión

Adin guztientzako moduko eskaintza musikala egongo da aurten ere Ferixa Nausiko jaietako guneeetan



Arkada Social



Koban

## MUSIKA • A.M.I

Denetariko taldeak igaroko dira oholtza gainetik Elorrioko jaietan. Rock doinu gogorrak izango dira lehenbiziko asteburuko kontzertuetako protagonista. Horrela, txupin bezperan Arkada Social eta Hexen taldeek eskainiko dute kontzertua. Lehenbizikoek jarraitzaile andana dute Elorrión bertan, eta baita eskualdean ere; Durangora etorri ziren azkeneko aldia bete egin zuten Plateruena kulturgunea. Hexen taldea Algortatik dator. *Street punk* doinuak jorratzen ditu emakume talde honek. Irailaren 7an, ostera, doinu dantzagarriagoak egongo dira aukeran plazan. Zea Mays eta Koban taldeek eskainiko dute kontzertua egun horretan. Zea Maysen daraman ibilbidea oso ezaguna da. Koban, ostera, talde berriagoa da, baina, hala ere, uda osoan hara eta hona ibili da Euskal Herriko hamaika herritan kontzertuak eskaintzen; *elektroswing* dantzagarria jorratzen dute. Dantzarako aukera edukiko du, baita ere, irailaren 8an Urarkara doanak. 70eko, 80ko, eta 90eko hamarkadetako ereserkiak abestuko ditu Aliron taldeak. Azken garaian bogan dagoen Sonakay taldeak egun bat geroago eskainiko du kontzertua, irailaren 9an, plazan. Flamenkoa euskaraz egiteagatik egin da ezagun talde hau.

Eskualdeko taldeen aldeko apustua egin du beste behin ere gaztetxeak. Bertan aurkeztuko du Nevada taldeak *We're Coming To You* azken lana. Beraiekin batera arituko dira John Dealer & The Coconut, irailaren 1ean. Irailaren 8an, Stronger Together berriztarrek *hardcore* doinuak deskargatuko dituzte gaztetxeko oholtza gainean. Beraiekin batera, N2OGU taldea arituko da gau horretan. Gaztetxean, baita ere, Revolta Permanent taldea arituko da irailaren 6an. Barakaldarrek hankaz gora utzi zuten gaztetxea beraien metal eta elektronika nahaste indartsuagaz.

Taula gainean ez ezik, musika Elorrioko kaleetan ere izango da protagonista. Disko-jartzaileak egongo dira egunero, tartean, Jkin Alonso elorriarra. DJ Bull eta Oihan Vega musika-jartzaile entzutetsuak ere arituko dira musika jartzen. Zenbait fanfarre arduratuko dira kaleak girotzeaz. Denetariko doinuak joko dituzte horiek. Irailaren 1ean mariatxiak ikusteko aukera egongo da.

**DJ Bull eta Oihan Vega musika-jartzaile entzutetsuak ere arituko dira musika jartzen; gaztetxean eta plazan**

**ESTETIKA eta TATTOO ZENTROA**

San Juan kalea, 23 behea 3  
Tel.: 944 008 846 · ankestetika@gmail.com

Elizalde Baserría  
Mendraka auzoa, 1 ELORRIO  
Tel.: 94 682 00 00

**Urkilan**  
OPEL ZERBITZU OFIZIALA  
**GORA FERIXA NAUSIKOAK!**

Urkizuaran, 39 - Tel.: 946 820 237 / 617 636 889  
Fax.: 946 583 411 - 48230 ELORRIO / Bizkaia  
[urkilan@urkilan.net](http://urkilan@urkilan.net)

**CUMENOR**

- Obra berria eta eraberritze integralak eraikinetan eta nabeetan
- Eraberritzeak estalki eta fatxadetan
- Obra proiektuak igogailuen instalaziorako eta arkitektura-oztopoak kentzeko
- Obren konponbideak komunitateetarako
- Lokalak gaitzea
- Urbanizazioak
- Mota guztietako obra eta proiektuak

INFORMAZIOA ETA AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Ibaizabal k/ 1- 48260 Elorrio Bizkaia  
info@cumenor.com - www.cumenor.com

Tel.: 946 215 677  
Faxa: 946 462 931

**Argiñeta**

**HIRIGINTZA ETA INMOBILIARIA BULEGOA**

Zure konfiantzazko inmobiliaria

Urarka, 1 - 48230 Elorrio  
Tel.: 946 820 041  
Faxa: 946 231 630  
[argineta@euskalnet.net](mailto:argineta@euskalnet.net)  
[www.argineta.net](http://www.argineta.net)

**Galdaragintza**  
Forja artistikoa  
Enpresen mantentzea

Berriozabalbeitia, 10  
Tel: 946 584 547 · Faxa: 946 582 888  
48230 ELORRIO (Bizkaia)  
[ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net](mailto:ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net)

Eugenio Sánchez  
Agustin Urien

# JAIAK!

IZURTZA 2018



IZURTZAKO  
JAIAK  
2018



**Izurtzako jaiak 2018**

Abuztuak 31, barikua

**20:00** Txupinazoa eta trikipoteoa.**22:00** Kontzertua Gaztelekuan: The Enfermos. DJ Peru, DJ E.K.Ramirez eta DJ Kuesta.

Irailak 1, zapatua

**12:00** Paella lehiaketa.**13:30** Enkartelada.**14:30** Plateren aurkezpena.**15:00** Herri bazkaria.**18:00** Bingoa.

Irailak 2, domeka

**10:00** Kalejira JAIZALEgaz.**11:00** Meza Santua Ageda basilizan.**12:00** Mendigain Dantza Taldea.**14:30** Bertso bazkaria:

- Eneko Abasolo
- Eli Pagola
- Txaber Altube

**17:00** Hodei Magoa.**19:00** Lotxo taldea.

Irailak 7, barikua

**16:00** Umeentzako jolasak.**17:30** Pailazoak POTXIN ETA PATXIN

Irailak 8, zapatua

**10:00** Kalejira JAIZALEgaz.**11:00** Meza Erdoitzako basilizan.**11:30** Mendigain Dantza Taldea**13:00** Mendigain Dantza Taldearen 50. urteurren ospakizuna.**15:00** Bazkaria.**19:00** Tortilla txapleketa**20:30** Tortillen aurkezpena**21:30** Afari herrikoia.**22:30** Basajaun taldea.

Irailak 9, domeka

**09:30** XXVII Mendi Bizikleta Martxa.**10:00** Kalejira JAIZALEgaz.**11:00** Meza Santua Tomas basilizan.**11:30** Mendigain Dantza Taldea.**12:00** Bertsolariak:

- Onintza Enbeitia
- Ohiana Bartra

**13:30** Igel Txapelketa**14:30** Jubilatuen bazkaria.**17:30** Mus Txapelketa Argintxu Elkartearen

**Mendi Gain dantza taldeak sortu zeneko 50. urteurrena ospatuko du jaietan**

**Azkonizaga****Edari banaketa**GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK  
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAKLejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel.: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.comMañondo Baserria, 10  
Tel.: 946 815 600  
48213 Izurtza**IZURTZAKO  
HERRIKO TABERNA**URDAIAZPIKOA Tel.: 946 202 024  
SALAMANCAKO TXORIZOA IZURTZA  
SOLOMO IBERIKOA  
GAZTA**GALDAKETA ETA  
SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK**Foseco Española, S.A.  
Elizalde azuza, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73  
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)**VESUVIUS**



Urteurrenako ospakizunaz gainera, Mendi Gain dantza taldeak beste hainbat saio izango ditu herriko jaietan.

## Gaur arratsaldeko txupinazoagaz ekitaldiz betetako jaiak hasiko dituzte Izurtzan

Jaietako ikur edo maskota berria estreinatuko dute, Trokotxa izeneko basurdea. Udalerriko armarrarian agertzen den animalia da

**EGITARAUA** • JOSEBA DERTEANO

Datozen asteburu bietan jai-giroz jantziko da Izurtza. Udal agintariak gaur, 20:00etan, igoko dira balkoira txupinazoa botatzeko, eta protagonista berri bat izango dute ondoan. Jaietako ikur edo maskota berria: Trokotxa izeneko basurdea. Herriagaz identifikatzen den animalia da, udalerriko armarrarian agertzen delako. Jaiak hasi eta amaitu arte udaletxeko balkoian egongo da.

Tradizioari eutsiz, herrigunean ez ezik inguruko auzoetako ermitiek eta euren inguruek ere hainbat ekitaldi hartuko dituzte. Santa Ageda basiliza da horietako bat. Igande honetan Jaizale kalejiraren laguntzagaz bertaratuko dira herritarrek meza hasten denerako. Ostean, Mendi Gain dantza taldeak saioa eskainiko du eta bertso bazkaria egingo dute Eneko Abasolo 'Abarkas', Eli Pagola eta Txaber Altu-

**Domeka honetan, Santa Ageda inguruan egingo dute jai, Eneko Abasolo, Eli Pagola eta Txaber Altube bertsolariekin, besteak beste**

be bertsolariekin. Arratsaldean herrigunean jarraituko du jaiak Hodei magoagaz eta Lotxo taldearen erromeriagaz.

Bigarren domekak Santo Tomas basiliza eta bere inguruak izango ditu protagonista. Mezaren eta dantza saioaren ostean, Onintza Enbeita eta Oihana Bartra bertsolarien txanda izango da. Aurten mendi bizikleta martxa ere egun horretan egingo dute, irailaren 9an.

### Dantza taldearen urteurrena

Domekak ekitaldiz bete-beterik datoz, eta beste hainbeste esan daiteke jaietako zapatu bie buruz ere. Irailaren 8a berezia izango da, Mendi Gain dantza taldeak sortu zeneko 50. urteurren ospakizuna egingo duelako. Dantza saioa eskainiko dute 11:30ean, eta 13:00etan hasiko da ospakizuna, herri bazkarian batu aurretik. Arratsaldean tortilla txapelketa eta Basajaun taldearen kontzertua izango dira.

### Argazki lehiaketa

Udalak jaietako argazki lehiaketa abiatu du aurten ere. Laugarren aldia egingo du. Hiru sari banatuko dituzte guztira: 100 euro irabazlearentzat, 75 euro bigarren argazkirik onenarentzat eta 50 euro hirugarrenarentzat. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 28ra artekoa izango da, Izurtzako udaletxean. Kultura eta jai batzordeetako kideek osatuko dute epaimahaia.

## "Kartel koloretsua eta alai egiten saiatu naiz"

Izurtzarrek Iñigo Peñak egindako kartela aukeratu dute aurtengo jaiak iragartzeko



Iñigo Peña kartel irabazleagaz.

**LEHIAKETA** • J.D.

Iñigo Peña Hernandezek (Basauri, Izurtzan bizi da, 1983) diseinatutako kartelak irabazi du, aurten, udaletik abiatutako lehiaketa. Dantza eta kolorea uzartu ditu kartela egiteko. "Dantzarien argazki bat du sorburu. Dantzarien jantzietako osagaiakin zerbait egin zitekeela bururatu zitzaidan. Oinarri horren gainetik kolore nagusitzen da. Jaietarako zenez, kartel alai eta koloretsua izan zedin saiatu naiz", adierazi du Peñak.

**"Lehiaketa irabaztea sorpresa pozgarria izan da. Herritarrek aukeratu dutela jakiteak balio erantsia ematen dio"**

Kartelak egitea afizio du, baina, momentuz, Izurtzako lehiaketara baino ez da aurkeztu, birritan. "Beharbada animatuko naiz beste lehiaketa batzuetan parte hartzen. Aztertu egin beharko dut", adierazi du.

Aurtengo kartel lehiaketa berezia izan da, izurtzarrek aukeratu dutelako irabazlea. Lehiaketara aurkeztutako kartel denekin postu bat jarri zuen plazan udalak, eta gehien gustatzen zitzaiena bozkatzeko aukera eskaini zien herritarrei. Peñaren proposamenak jaso zituen botorik gehienak. "Lehiaketa irabaztea sorpresa izan zen, egia esanda, eta oso pozgarria ere bai. Izan ere, herritarrek aukeratu dutela jakiteak balio erantsia ematen dio", Peñaren ustez.

**arbere**  
Aterik ate gasoleo banaketa

946 20 40 45  
630 05 89 10  
www.arbere.com

**RECYTRO**

BILKETA ZERBITZUA  
INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK  
TROKELAN SUNTSITZE LANAK

Eleizalde auzoa, 47 - 48213 IZURTZA  
Tel.: 946 818 979 - Mov.: 639 438 197  
info@recytro.net - www.recytro.net

BASERRIKO OGIA

**ANTONIO TXIKI**  
CASERIO BERRIZETXE

Berrizetxe baserria  
Elizalde, 32 - Izurtza  
Tel: 94 681 78 21

**IZURTZAKO GASOLINDEGIA**

GARBIKETA MAKINA BERRIA

**AVIA**

Ortuzar auzoa - Izurtza



IURRETA

**Tellitu-n**  
**udazkenean**  
**hasiko gara**  
**eraikitzen**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne



**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)





## Eubako jaiak

JAIK ZORNOTZA :: Abuztuaren 31

### Jaietan murgilduko da Euba, gaur hasi eta domekara arte

Gaur hasi eta domeka iluntzera arte auzoko jaietan murgilduko dira Euban. Egurrezko jolas tradizionalak hasi, eta tortilla eta mus txapelketekin jarraituko dute eguna amaitu artean. Zapatuan, ohi bezala, Mozorro Eguna ospatuko dute Zornotzako

auzoan. 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetara egingo dute jauzi auzotarrek. Elkarrekin bazkaldutostean, Kittuk, Gregory maria-txiek eta Xaiborrek dantzan jarriko dituzte festazaleak. Domekan emango diete emaiara jaietara, Festamendu dantza ekitaldiagaz.

## 'Editore Mozorrotua' Rementeriarren eskutik ezagutzeko aukera

**ARTEA** | Ekainaz geroztik, Jose Ignacio Olave editoreak 25 urtean bildutako lanekin osaturiko 'Editore Mozorrotua' erakusketa ikusgai egon da Durangoko Arte eta Historia Museoa. Udarako, bisita gidatuak antolatu ditu museoak erakusketan parte hartzen duten obren egileekin. Irai-

laren 5ean, adibidez, Alberto Rementeriak erakusketaren bisita gidatua eskainiko du. Guztira, bederatzi artisten 60 bat obrak osatzen dute erakusketa. Hain zuzen ere, 1983an editatu zuen lehen obra Olavek, Alberto Rementeriarren *La Vaca Madre*. Ordutik, ia 85 edizio egin ditu.



### Abuztuaren 31n

**ZORNOTZA Eubako jaiak** 'Zuresku' egurrezko jolas tradizionalak umeentzat, gazeentzat eta helduentzat, 16:30-19:30; **tortilla txapelketa**, 20:15ean; **mus txapelketa**, 20:30ean.

### Irailaren 1ean

**ZORNOTZA Eubako jaiak** 'Mozorro Eguna' (gaia: 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadak). Umeentzako bazkaria, 13:30etan; **nagusientzako bazkaria, ostean, erromeria Kittu taldeagaz**, 15:00etan; **Xaiborren emanaldia**, 19:30ean; **erromeria Gregory mariatxiagaz**, 21:30ean; **"El Retorno de la Década Prodigiosa"-ren emanaldia, eta amaitzeko, Xaiborren emanaldia**, 22:30ean.

### Irailaren 2an

**ZORNOTZA Eubako jaiak Meza. Ostean, herri kirolak**, 12:00etan; **'Julen' antzezlanaren Hotzumga taldearen eskutik**, 18:30ean; **'Festamentu' dantza ikuskizuna Tio Teronen Semeak taldearen eskutik**, 20:30ean.

### Irailaren 5ean

**DURANGO Artea** 'Editore Mozorrotua' erakusketaren bisita gidatua Alberto Rementeria gaz, 19:00etan, Durangoko Arte eta Historia museoa.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA

#### • Yucatan

barikua 31: 19:30/22:00  
zapatua 1: 17:00/19:45/22:30  
domeka 2: 18:00/20:30  
astelehena 3: 18:30/21:00  
martitzena 4: 20:00  
eguzatena 5: 20:00

#### • En Las Estrellas

barikua 31: 22:00  
zapatua 1: 19:45/22:30  
domeka 2: 19:00/21:00  
astelehena 3: 21:00  
martitzena 4: 20:00  
eguzatena 5: 20:00

#### • ¿Quién Está Matando a los Moñecos?

barikua 31: 22:00  
zapatua 1: 20:30/22:30  
domeka 2: 20:30  
astelehena 3: 21:00  
martitzena 4: 20:00  
eguzatena 5: 20:00

#### • Barcos Al Rescate (euskaraz)

zapatua 1: 16:45  
domeka 2: 16:30

#### • Los Increíbles 2

barikua 31: 19:30  
zapatua 1: 17:00  
domeka 2: 16:30  
astelehena 3: 18:30

#### • Los futbolísimos

barikua 31: 19:30  
zapatua 1: 18:30  
domeka 2: 18:15  
astelehena 3: 18:30

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Julen Alberdik (baxua), Oier Sacristanek (bateria), Haritz Mirandonak (ahotsa eta gitarra) eta Unai Sulibarriak (gitarra) osatzen dute Zornotzako Blanco y en Botella rock and roll taldea. Uda hasieran, Zelaleta zentroko lokaletan grabatutako *Vol II* diskoa kaleratu zuten, beraien bigarren lana. Plataforma digitaletan entzun daiteke diskoa, eta formatu fisikoan ere esku-ratu daiteke.

**Nola sortu zenuten Blanco y en Botella taldea?**

Betiko lagunak gara laurok. Bakoitza bere instrumentua jotzen ikasten zebilen. Zornotzako entsegu lokaletan geratzen hasi ginen, gustuko ditugun abestien bertsioak jotzeko. Gero, gure lehenbiziko abestiak izango zirenak idazten hasi ginen. Egun batean, Aitor Laka Memoria de Pez taldeko gitarriak abesti horiek bere lokalean grabatzea proposatu zigun. EP horregaz hasi zen Blanco y en Botella.

**Izena, nondik datorkizue?**

Ez dakigu nondik datorren, egia esateko. Okurritu zitzaigun, gus-tatu zitzaigun eta horrela utzi genuen.

**Lehenbiziko lanetik bigarrenera, jauzi handia igarri duzue?**

Lehenbiziko lanean Lakak egin zitu- en ekoizle lanak, berak gidatzen gintuen, abestiek hartu beharreko norabideagaz eta bilatzen genuen soinua lortzen lagundu zigun; funtsean, asko igartzen da lan horretan esku hartu zuela. Bigarren honeguz, geuk egin gura izan dugu guztia. Julen baxu-jotzaileak

# “Bigarren lan honetan guztia geuk egin gura izan dugu; soinu gordinagoa eta zuzenagoa du, geureagoa, funtsean”

Rock and Roll doinuak jorratzen ditu Blanco y en Botella laukote zornotzarrak. Gazteak izan arren, hainbat urte daramatzate Zelaleta zentroko lokaletan entseatzen. Ingurietako taldeak babesteko deia egin dute



“**90eko hamarkadako Bilboko taldeen antza dugula esaten digute: Platero y Tu eta Flying Rebollos, adibidez**”

grabatu du, eta soinua geureagoa du. Lehenbizikoak baino soinu gordinagoa eta zuzenagoa duela iruditzen zaigu. Hainbat lagunek lagundu digute. Esate baterako, Jonan JdJ-k abesti batean rap doinuak sartu ditu, Miren Eelesen piano

doinu batzuk grabatu ditu, eta Leire Jauregibeitiak abestu egin du kantaren batean.

**Zein musika talderen eragina duzue?**

Entzutea gustatuko litzaizkigukeen abestiak egiten ditugu eta, normala den bezala, entzuten ditugun taldeen eragina nabaria da. 90eko hamarkadan Bilbotik irten ziren taldeen antza dugula esaten digute beti, Platero y Tu, Flying Rebollos eta horrelakoak. Besteak beste, ZZ Top, Black Crowes, Gary Clark jr eta Chuck Berry artistek ere eragina izan dute gudan.

**Zeri buruz abesten duzue? Zein da zabaldu gura duzuen mezua?**

Ez dugu motibazio zehatzik hitzak idazterakoan, irteten zaizkigun bezala idazten ditugu. Izan daiteke munduari kritika bat, zein fikziozko pertsonaia bati buruzko istorio bat, berdin-berdin.

**Parte hartu duzue inoiz Zornotzako Maketa Lehiaketan? Zer iruditzen zaizkizue horrelako ekimenak?**

Orain urte bi antolatutako Durangaldeko Maketa Lehiaketan parte hartu genuen, lehenbiziko diskoagaz, eta finalerdietara iritsi gi-

“**Gurearen moduko talde autogestionatuentzat gero eta laguntza gutxiago dago, eta gero eta zailagoa da**”

nen. Gurearen moduko talde autogestionatuentzat gero eta laguntza gutxiago dago; gainera, gero eta gune gutxiago dago kontzertuak eskaintzeko, eta gero eta zailagoa

da. Horrelako lehiaketak zerbait egiteko lagungarriak direla iruditzen zaigu, baina ez dira nahikoa. Talde hasiberriok ez dugu ia laguntzarik jasotzen, eta pena bat da; etxean bertan talde oso onak ditugu, alferrik galtzen ari direnak, ez dutelako modurik ezagutzera emateko edo ez dutelako aukerarik euren lanak entsegu lokaletik kanpo aurkezteko.

**Etorkizunerako, zein asmo duzue?**

Udan geldituta egon gara, baina irailera eta urrira kontzertuak eskaintzea da gure asmoa.

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

**Ainara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

R.P.S. 145-13

# Irailaren 6an jakingo da 'Handia' Oscar sarietan egon ahalko den

Espainia ordezkatzeko lehian 'Campeones' eta 'Todos lo saben' filmekin lehiatuko da



Goya saria irabazi zuen Eneko Sagardoyk 'Handia'-n eginiko interpretazioari esker.

**ZINEA** • J.G. / A.M.

Irailaren 6an jakinaraziko du epai-mahaiak Aitor Arregiren eta Jon Garañoren *Handia* filmak Oscar sarietan Espainia ordezkatzeko duen ingelesez egina ez den filmik onenaren atalean. "Oscar sarietan egon

ahal izatea pastelaren ginga litzateke, prozesu osoa itzela izan da-eta", adierazi du Eneko Sagardoy aktore durangarrak, pozik izendapenagatik. Finalera *Campeones* (Javier Fresser) eta *Todos lo saben* (Asghar Farhadi) pelikulekin batera iritsi da

*Handia*; guztira, bost film lehiatzen dira atzerriko filmik onenaren atalean, eta Espainia ordezkatzeko gero, horietako bat izateko aukera luke euskal ekoizpenak.

Oscar sarien alfonbra gorrian egoteko aukera edukitzea peliku-

larentzat eta euskal zinemagintzarentzat abagune polita da durangarraren iritzian. "Asko poztuko nintzateke taldeagatik, eta, batez ere, ekoizleengatik eta zuzendariengatik. *Loreak* filmeagaz ikusi zen bezala, horrelakoak bultzada itzela dira". Euskaraz egindako film bat azken lehian sartzen den bigarren aldia da hau. "Aitortza bat dira horrelakoak, eta, esan bezala, bultzada bat dira ekoizleentzat eta zuzendarientzat.

**Euskaraz eginiko film bat Oscarretara sailkatzeko azken lehian sartzen den bigarren aldia da**

**Udan 'Soinujolearen Semea' filmearen grabaketan parte hartu du Eneko Sagardoyk**

**Udan ere behar**

Uda ere, ikasturtea bezala, bizi-bizia eduki du Sagardoyk. *Soinujolearen Semea* filmearen grabaketan parte hartu du, Meridako jaialdian *Fedra* aurkeztu du, eta *Obabakoak* antzezlanaren entseguekin eta emanaldiekin ere jarraitu du.

**Geure Durangaldea**

Ainhoa Urien  
Telletxe  
Ikaslea



**Ureztatzea**

Bero handia egin zuen azken bi egunetan, luze hala jarraituz gero lurra idortu eta errekatxoak ahitzeko modukoa. Atariaren ondoan hormatik zintzilik dagoen lorea ureztatzea ahaztu zitzaidan. Etxeko atea zabaltzerakoan, ezkerretara begiratu eta hantxe ikusi nuen, erabat zimeldutako itxurarekin, hostoak erabat makurtuta, petaloen kolore gorri biziak berehalako heriotzaren aurrean amore eman izan balu bezala. Pitxer bete ur hartu eta lur artera bota nion. Konturatu orduko xurgatu zuen ura.

Egunerokotasunean badira simpleak diruditen irakasgai handiak. Lore batek erakutsi diezazuke zenbat ur eman behar zaion barruari egarriz ez sikatzeko; lore bat ureztatzea ahaztu izanak erakutsi diezazuke zenbat aldiz ahaztu zaizun zure barrura pitxer bete ur botatzea.

Lorea ureztatu eta hurrengo egunean bazirudien denborak egun bi atzera egin zuela. Hantxe zegoen lorea, zoli, petaloak zabal eta hostoak zut. Kolore gorri eta berdeen leherketa zoragarria.

Hala ohartu nintzen nik ere baso bete ur edatean gorputzak beste dimentsio bat hartzen didala, eta gure barruak ere basokadaz basokada ureztatu egin behar direla, zimeldu ez daitezen bederen. Zenbat aldiz ahaztu zaigu loreei ura botatzea? Zenbat aldiz ahazten zaigu barruko egarria asetzea?

Ureztatu izpiritua, ametsak zimeldu ez daitezen eta biziak bizirik jarrai dezan.

Gauza asko irakasten dizkigute eguneroko momentu simpleek. Arreta jartzea baino ez da kontua.

## Itsuak zazpi abestiz osatutako 'Supreme Salad' diskoa kaleratu du

Beat Salad ekimenagaz kaleratu du azken lana ekoizle eta beatmaker durangarrak; sarean dago, doan entzungai

**MUSIKA** • A.M.

Ekoizle eta beatmaker durangarrak zazpi abestiz osaturiko *Supreme Salad* diskoa kaleratu du udan. Ohi bezala, musika doinu beltzak dira laneko protagonistak. Jazza, hip hopa, breakbeat-a eta musika tropikala uztartzen ditu lan berri honetan, udarako aproposak diren doinuak eskaintzeko. Hirugarren lana du

artista durangarrak. Aurretik, *Soviet Space Salad* eta Paddy Rekalde idazleagaz elkarlanean eginiko diskoa kaleratu ditu; azken honetan, poemak eta erritmo indartsuak uztartu zituzten, slam poetry edo dub poetry doinuetara hurbilduz. Diskoaren azalaz, ostera, Estrella Electronica (Olatz Arrese) arduratu da.



Itsua.

www.plateruena.eu

**PLATERUENA**

**EL PUTO BEN**

Irailak 15  
23:00etan

Kontzertua

PLATERUENA  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jaletxea@plateruena.net

**San Agustin  
KULTUR GUNEA**

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO URSULA

# “Aurretik hamar urte eman nituen hemen eta etxeko talde moduan sentitzen dut DRT”

Iñaki Perezek Oskar Astarloaren eta Kemen Goitiandiaren tokia hartu du DRTko lehen taldeko entrenatzaile karguan



**Iñaki Perez Briones**  
**‘Ortzi’**  
DRTko entrenatzailea  
Algorta | 1958

**ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO**  
Durango Rugby Taldean bigarren etapa bat hasi du Iñaki Perezek. Dozena bat urte joan dira lehenengoari amaiera jarri zionetik, baina ondo gogoan ditu urte haiek. Hainbat igoera lortu zituen, Ohorezko B Mailarakoa tartean. Harrezkero, maila horretan dihardute durangarrek.

**Getxo taldeko entrenatzaile izateari utzi eta DRTa batu zara. Zerk erakarri zaitu talde durangarraren proiektutik?**  
Erronka berri bati heldu gura nion. Bilboko Unibertsitatea taldetik deitu zidaten eta dena prest nuen hara joateko, oportetean Georgiara joan aurretik. Oportetean nengoela,

DRTtik deitu zidaten. Hamar urte eder eman nituen hemen, etxeko talde moduan sentitzen dut eta hori faktore garrantzitsua izan da erabakia hartzerako orduan. Bilboko proiektua erakargarria zen arren, ez nuen dudarik izan.  
**Utzi zenuen maila berean aurkitu duzu taldea. Horretan ez dago alda-**

**ketarik. Kluba zertan aurkitu duzu berdin eta zertan aldatuta?**

Hainbat gauza gogoratzen nituen moduan daude. Esaterako, hemen nengoela inauguratu genuen belar artifizialeko zelai berria. Zuzendaritzan ere lehengoek darraite. Jokalarien aldetik batzuk ezagutzen ditut. Lehen etapako azken urtean gazteen taldea entrenatu nuen eta orduko jokalaria batzuk lehenengo taldean dabilta gaur egun.

**Zelan gogoratzen duzu zure lehenengo etapa?**

Euskadin behe-behetik abiatu ginen lehen urtean. Entrenamendu sistemak sendotu eta ordenatu genituen. Apurka talde lehiakorra osatu eta igoerak lortu genituen. Gaur egun DRT Ohorezko B Mailan jarraian urterik gehien daramatzan taldea dela esango nuke.

**Igoera bat baino gehiago lortu zenuzuten orduan. Arrakastaren erreza gogoratzen duzun galdetuko dute zaleek...**

Badago esaera bat dioena bigarren zatiak sekula ez direla onak izaten. Baina, tira, kontrako kasuak ere badaude. Egia esanda, horrek beldur apur bat sortzen zidan. Bere argi-ilunekin, lehen etaparen oroitzen onak ditut eta ez nuke sentimendu hori orbandu nahi, baina erronkak hartzeko dira.

**Errezeta on bat egiteko, osagai onak izatea funtsezkoa da. Lehengai ona aurkitu duzu?**

Orain arteko entrenamenduetara, batzuetan jende gehiago etorri da beste batzuetan baino. Oporrak ere badira, lana eta entrenamenduak bateratzea beti ez da erraza... Taldea ezagutzen nabil oraindik. DRT harrobiko kluba da eta horrek bere erraztasunak eta zailtasunak ditu. Fitxaketek taldea indartzen dute, hori horrela da, baina etxeko jokalariek badute besteek eskaintzen ez duten zerbait: bihotza. Taldea ondo zein txarto egon, konpromisoa erakusten dute eta ordainpekoetan sarritan ez da horrela izaten.

**Iaz maila galtzeko zorian izan zen DRT. Aurten zein izango da helburua? Zer eskatu dizute?**

Talde izaera indartzea da helburu nagusietako bat. Azken aldian nortasun hori apur bat ahuldu egin omen da eta hori berreskuratzea da lanetako bat.

**Nola doa denboraldi-aurrea? Lagunartekorik jokatu duzue?**

Oraindik ez. Joan zen astean hasi genituen entrenamenduak eta lau saio egin ditugu astero. Zapatu honetan lagunarteko partidua jokatu dugu Arripausuetan, Iruñeko talde baten kontra. Horixe izango da aurrenekoa. Datorren astean beste lau entrenamendu saio egingo ditugu Angletera joan aurretik. Hango klubeko 23 urtez azpiko taldearen kontra jokatu dugu. Horren ostean, benetako ordua helduko da. Irailaren 16an hasiko dugu liga denboraldia, Eibarren kontra, etxetik kanpora. Ea garaipen batekin hasi gaitzkeen.

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

CERAMICAS  
**MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Chimeneas  
Ceramicas MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**TABIRA**  
Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO  
944 668 852 / 690 622 499

**Hartu atsedenalditxo bat**  
[www.cuidamosdetusmayores.com](http://www.cuidamosdetusmayores.com)

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •

# Athleticek edo Realak Zornotzako Urritxe zelaian jasoko dute Euskal Herria Kopako garaikurra

Biharko finalean Bizkaiko taldeak zazpigarrenez irabazi dezake Kopa; Realak garaipen bat du, 2012. urtean lortutakoa

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Urtero hautagai asko izaten ditu Euskal Herria Kopak, baina orain arteko final denek protagonista bi izan dituzte: Athletic eta Realak. Aurtengoa ere ez da salbuespena izango. Euskal talderik indartsuenek futbolzaleen artean ikusminik handiena eragiten duen finala jokatu dute bihar, 16:00etan, Zornotzako Urritxe futbol-zelaian. Durangaldeak emakumeen Euskal Herria Torneoeko partidu erabakigarria hartuko duen lehenengo aldia izango da.

Euskal Herria Kirola elkarteak antolatutako kopak zortzigarren aldia du aurten. Talde zuri-gorriak palmarekin oparatu eta ia eskusiboa du txapelketa honetan, sei garaikurrekin. 2012ko finala ez beste guztiak irabazi ditu. Ordukoa Realak irabazi zuen.

Hamahiru euskal talde batu dituzte kanporaketek. Athleticetik Eibar gainditu zuen finalerdietan, eta Realak, Bilboko San Inazio. Urritxe zelaian egindako finaleko

**"Kopa berezia da, huts egin ezineko hitzordua gure egutegian", adierazi zuen Ainhoa Tirapuk**

aurkezpenean kopa irabazteko irrika azpimarratu zuten talde bietako kapitainek. "Kopa berezia da, huts egin ezineko hitzordua gure egutegian", adierazi zuen Ainhoa Tirapuk Athleticeko kapitainak.

Finalerako sarrerak [www.ehkirola.eus](http://www.ehkirola.eus) webgunean eskuratu daitezke (7 euro). Amorebieta klubeko bazkideek doako sarrera izango dute. Partiduko atsedenaldian askotariko opariak zotz egingo dituzte.



Ainhoa Tirapuk eta Sandra Ramajo kapitainak, Zornotzako alkate Andoni Agirrebeitia eta hainbat erakundetako ordezkariak aurkezpenean.

## Adituaren txokoa

Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia



### Ortziren itzulera

Ortziren inguruan idaztea eskatu zidatenean ilusio handiz hartu nuen eskaera, urte luzez nire entrenatzailea izan delako, eta errugbiak dakidan apurra berarekin ikasi dudalako. Beraz, ohore handizat hartu nuen.

Nor dugu Iñaki Perez Briones "Ortzi"? Algortan jaiotako gizona, Getxo RTn hainbat urte jokalaria eta entrenatzaile gisa aritutakoa. 90eko hamarkadan Getxo talde mitikoaren kidea, Liga txapelketa bat eta lau errege kopa eskuratu zituen.

Nola lurreratu zen Durangon? DRTk bere ibilbidearen 10. urteurrena ospatzeko partida batzuk jokatu zituen Getxo RTaren aurka. Egun horretan hasi zen kluba berarekin hitz egiten eta 1997-1998 denboraldian entrenatzaile lanetan izan genuen.

Sasoi horretan talde gaztea genuen, gogo eta ilusio handia izan arren, taktika eta halako kontuez ia ezer gutxi genekien. Ortzik hainbat kontu aldatu zituen gurekin emandako hamar urteetan. Alde batetik, entrenamenduak askoz landuagoak ziren. Ariketa ugari, taktika bariante edo aldaera askorekin. Zeretik hasi eta dezente hobetu behar izan genuen.

Bestetik, taldea egitea lortu zuen, hau da, gure indarretako bat bilakatu zuen talde izaera. Ziurrenik ez genuen oso joko ikusgarria eskainiko, baina grina, indarra eta irabazteko gogoarekin kutsatu gintuen.

Bukatzeko, berak lortu zuen gutariko askok gure gaitasuntan sinestea. Urte horiek, niretzat behintzat, zoragarriak izan ziren, eta talde moduan izugarri hazi ginen.

Orain erronka ederra du Ortzik, jokalaria gazte ugari ditu, belaunaldi ederra. Bejondeizula Ortzi, zorte on hastear dagoen denboraldian eta eskerrik asko emandako guztiagatik!

## Asteko kirolaria

### "Oizkoa berezia izango da, gertukoak bertan izango baititugu animatzen"

Irailaren 12an Oizen amaituko da Espainiako Vueltako etapa; bertan izango da Bizkarra

**Zapatutik bere lehen itzuli handia, Espainiako Vuelta, lehiatzen ari da Mikel Bizkarra mañariarra. Euskadi-Muriaseko txirrindulariak ilusio berezia du irailaren 12an Oizen amaituko den etaparako.**

**Itzuli handi batean debutatu berri duzu. Zelan doa Espainiako Vuelta? Lehen etapak gogorak izaten ari dira, abiadura handian joateaz gain bero handia egiten duelako.**

#### Nola zaude lehen egunetan?

Lehen egunetan ez nintzen ondo sentitu, baina ematen du apurka-apurka erritmo egokia hartzen nabilela, eta egunetik egunera hobeto nago.

#### Zuen taldea protagonista izaten ari da egunero.

Helburua protagonistak izatea da, horregatik sartzen dugu norbait ihesaldietan. Bestalde, etapa garaipen bat lortzea ere bada gure

asmoa, nahiz eta badakigun zaila izango dela. Baina lortu daiteke.

#### Oizen amaituko da Espainiako Itzuliko 17. etapa. Ilusio berezia egiten dizu horrek?

Ilusio handia dut. Oizkoa berezia izango da, gertukoak han izango baititugu animatzen. Baita txirrindularitzak dituen zalerik onenak ere, euskaldunak. Horrez gain, etxe ondoan amaitzea eta entrenatzen ibiltzen garen bidee-



MIKEL BIZKARRA ETXEGIBEL  
Mañaria, txirrindularia

tatik igarotzea polita izango da.

#### Oizen, etxean, amaitzeak presio handiagoa eragiten du?

Denoi ilusio handia egiten digu etapa horrek, baina ez dugu kargarik. Ez daukagu ezer galtzeko, dena dugu irabazteko.

 **Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

 **Smurfit Kappa**  
Nervión

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguésado.com  
inmoduranguésado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

**//AUKERA**  
**AUKERA.** 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela terrazarekin, ganabara eta garajea. 145.000 € (negoziagarria)  
**IBAIZABAL** Apartamentua. la berria, ganbara handia velux-arekin eta garajea.199.000€  
**IURRETA** Dena berria. 2 logela, bainugela, sukaldia, egongela jangelarekin eta terraza. 120.000€

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**SAN IGNACIO.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela eta terraza. igerilekua aukeran. 195.000 €  
**NUEVOS. A ESTRENAR:** 86m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela, terraza, ganbara. 152.000 €  
**ASK. ETORBIDEA:** DUPLEX. 100m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia eta esekitokia. Egongela eta trastelekua. 220.000 €  
**SAN IGNACIO.** 104m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia jangelarekin, egongela. Ganbara eta garajea. 260.000€  
**BERRIZ.** Familia bakarreko baserría. 3 solairu. 195.000 €  
**IPARRAGUIRE** 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, eguzkitsua. 230.000 €  
**MATIENA. LAUBIDETA.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, 2 terraza, ikuspegiak eta eguzkitsua.  
**LANDAKO ETORBIDEA.** 3 logela. 2 bainugela. Sukaldia. Egongela. Terraza. Ganbara. Camarote. Garaje opcional. 196.000€  
**ANTSO EZTEGIZ.** 90m2. 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela terrazarekin. 150.000€. neg.  
**ANDRA MARI.** Erdigunean. 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela, galería eta trastelekua. 125.000 €  
**J. ICIAR.** 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela, terraza, eguzkitsua. Dena kanpora begira. 125.000€  
**ASK. ETORBIDEA:** 2 logela (lehen 3.), bainugela, sukaldia jangelarekin, egongela eta terraza. 177.000€  
**M.TORRE.** Piso altua. 3 logela, bi bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela, terraza, ganbara eta garajea.  
**KANPATORROSTETA.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, terraza handia, egongela terrazarekin, ganbara, eguzkitsua. 238.400 €  
**MATIENA** 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela, terraza, igogailua, eguzkitsua. 130.000€  
**ZALDIBAR.** Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. 129.000€  
**BERRIZ** 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela eta terraza. 65.000€  
**ZALDIBAR** 2 eta 3 logelakoa. Eguzkitsua, dena kanpora begira, berriztatua. 99.000€  
**F.J.ZUMARRAGA** 130m2. 3 logela (printzipala bikoitza.), 2 bainugela, sukaldia jangelarekin, egongela, 2 terraza, ganbara, garaje itxia bi autorentzako eta trastelekua (aukeran). 285.000€  
**ASK. ETORBIDEA** la berria. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela, ganbara. GARAJEA. Terraza 66m.  
**IURRETA.** 2 logela, bainugela, sukaldia, egongela jangelarekin. Berogailua. 114.000€  
**MADALENA.** Duplexa egiteko aukera. Azken solairua. 3 logela, bi bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela eta garajea. ORAIN: 260.000€  
**J.A. AGIRRE** Azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, esekitokia, egongela terrazarekin, bi ganbara eta garajea.  
**BERRIZ** Txalet adosatua. 4 logela, 4 bainugela, egongela 2 terrazarekin, sukaldia handia, garajea eta txokoa. 410.000 €

**//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIURAN**  
**ARTEKALE** 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. 94.000 € negoziagarria.  
**LOKALA** 50m2. EGOKITUTA. 85.000€. **DURANGO** TABERNA martxan. 95 m2.138.000 €  
**ZALDIBAR** Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.  
**F.J. ZUMARRAGA.** AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000€(Negociable)  
**IBAIZABAL.** 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIURUA. 500 €. **ASK. ETORBIDEA.** Garaje itxia. 18.800 €

**//ETXEBIZITZAK ALOKAIURAN**  
**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 650€-tik hasita.

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**DURANGO.** Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90m2 ganbarekin.  
**DURANGO.** Tabira kalean. Pisu ederra, oso argitzua, 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldia, komuna, eta garaje itxia.  
**IURRETA.** Maspé kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldia balkoiarekin, komuna eta igogailua.  
**DURANGO.** Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.  
**DURANGO.** Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.  
**BERRIZ.** Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldia balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.  
**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldia, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.  
**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.  
**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.  
**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldia esekitokiarekin, eta egongela.  
**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

**//LURSAILAK SALGAI**  
**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.  
**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.  
**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.  
**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.  
**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliario bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalarekin.

**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**  
**MAÑARIA.** Izugarriko baserría salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.  
**ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserría berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€  
**ATXONDO.** Baserrí ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.  
**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliario ederra salgai. 6 logela, 2 sukaldia, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezinhobea, Anbotora begira.  
**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserrí bifamiliario berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.  
**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatzen.  
**BERRIZ.** Baserrí ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserrí ondoan

**//BULEGOAK ALOKAIURAN**  
**ABADIÑO.** 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

**//LOKALAK ALOKAIURAN**  
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

**//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**  
**MATIENA.** 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

**www.inmoduranguésado.com**

**DURANGO** 3 logela  
**MARTXOAREN 8KO:** 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, hall-a eta balkoia; altzariz hornituta eta egoera onean. Etxebizitza osoa kanpora begira. Igogailua. Garajea eta ganbara (8m2).  
**260.000€**

**DURANGO** 3 logela  
2 komun  
80 m²  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia jarrita eta balkoia. Egoera onean, guztiz hornituta. Ur beroa eta gas natural beroagailua. Ganbara veluxarekin eta garajea.  
**255.000€**

**DURANGO** 3 logela  
2 komun  
**ERRETENTXU:** 85,71 m2 hall-a, egongela sukaldia handia jarrita, 3 logela, komuna eta bainugela, balkoia. Igogailua.  
**183.000€**

**DURANGO** 2 logela  
68,88 m²  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** Lehen 3 logela orain 2, parke berriaren ondoan. Sukaldia jarrita jangelarekin, egongela eta bainugela.  
**177.000€**

**MAÑARIA** 3 logela  
2 komun  
98 m²  
**MAÑARIA:** 98 m2. Egongela, sukaldia jarrita, 3 logela eta 2 bainugela. Trastelekua (13 m2).  
**195.000€ (negoziagarria)**

**DURANGO** 3 logela  
74 m²  
**J. ANTONIO ABASOLO:** 3 logela, egongela, sukaldia jarrita, bainugela eta balkoia. Garajea aukeran (18.000 € )  
**140.000€.**

**//DURANGO**  
**ANBROSIO MEABE** 3 logela, egongela, sukaldia, balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia. 270.000€/E.E.Z=F  
**ASKATASUN ETORBIDEA** 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta igogailua. 180.000€/E.E.Z=F  
**BARRENKALEA** 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta igogailua. 126.300 € / E.E.Z= G  
**ERRETENTXU** 4 logela, sukaldia, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. 210.000 € / E.E.Z=E  
**ERRETENTXU** 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. 205.000 € / E.E.Z=E  
**EZKURDI** 4 logela, sukaldia, egongela, 3 bainugela eta igogailua. 321.500 € / E.E.Z=F  
**KOMENTUKALE** Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. 175.000euro/ E.E.Z=F  
**LANDAKO ETORBIDEA** 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E  
**MIKELDI** 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ ORAIN 260.000 € / E.E.Z= E  
**MURUETA-TORRE** 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. 290.000 € / E.E.Z=E  
**MURUETA TORRE** 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. 288.000 € / E.E.Z=E  
**PLATERUEN PLAZA** 4 logela, sukaldia, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 275.000 € / ORAIN 260.000 € / E.E.Z=E  
**SANTIKURUTZ KALEA** Etxebizitza bifamiliario eraikitzeko 600m2ko lur-sorua. 640.000€  
**SASIKOA** 4 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, garajea eta ganbara. 220.000 € / E.E.Z=G  
**ZEHARKALE** 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta igogailua. 150.000 € / E.E.Z Bidean  
**ZUMALAKARREGI** 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

**//ABADIÑO**  
**ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. 170.000 € / E.E.Z Bidean  
**ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. 175.000 € / E.E.Z=E  
**FERIALEKU** 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 190.000 € / ORAIN 175.000 € E.E.Z=G  
**ZELETABE** 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

**BERRIZ**  
**ANDIKONA AUZOA** Berreraikitzen baserría, 460.000€  
**BERRIZBEITIA KALEA** 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta balkoia. 120.000€/E.E.Z=F  
**ELIZONDO AUZOA** 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. 142.000 € / E.E.Z= G

**//ELORRIO**  
**ELIZBURU KALEA** 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela. 199.000 € / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran.  
**SAN PÍO** Logela 1, egongela, sukaldia, bainugela, komuna eta igogailua. 179.900€/ E.E.Z =G.  
**SAN FAUSTO KALEA** 400m2 inguru bi solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldia, jantokia, bainugela 2 eta portxea. 2.800m2 inguruko lur sailarekin. 630.000€/E.E.Z=E

**//IURRETA**  
**ZUBIAURRE KALEA** 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta igogailua. 100.000€/E.E.Z=E

**//OTXANDIO**  
**GOMILAZ AUZOA** Baserría lurzoruagaz, 350.000€

HAUXE BAI JENEROA!

SALES, ENTRAS, DESCUBRES, TRANSFORMAS. TIENES LA REGLA. Y CON AUSONIA NO TE DETIENES. POR QUE SUS NUEVAS BARRERAS ANTIFUGAS TE MANTIENEN SECA HASTA OCHO EFICIENTES COLABORAS...

**AUSONIA, EL VALOR DE SER MUJER**

ALAJAINA

HILEKOA EZ EZIK BALIOA ERE GALDU NUEN ANTZA, MENOPAU-SIAREKIN

@garbineubeda

### Botikak

<b>BARIKUA, 31 - 09:00-09:00</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 1 - 09:00-09:00</b>	<b>MARTITZENA, 4 - 09:00-09:00</b>
<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>	<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA 09:00-13:30</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>	<b>EGUAZTENA, 5 - 09:00-09:00</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA 09:00-14:00</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA 09:00-14:00</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA 09:00-22:00</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>DOMEKA, 2 - 09:00-09:00</b>	<b>EGUENA, 6 - 09:00-09:00</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA 09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>ASTELEHENA, 3 - 09:00-09:00</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>

### Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, amama **Amaia!** Uxue, Gaizka, Anjel Mari, Lur, Katrin eta Xubanen partez. Eskerrik asko emoten doskuzun guztiagatik. Asko maite zaitugu. Jarraitu hain amama martxosa eta jatorra izeten. Mua, mua eta mua

**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Lucia (730. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



**Martinek eta Nekane**k uztaillaren 31n hogeita bost urte egin zituzten ezkontuta. Zorionak, bikote, familiaren partez.




Zorionak, **Miriam!** Jarraitu beti bezain alai eta irribarretsua! Mua!



Zorionak, poxpolintxo! Jarraitu zure barre polit horrekin eta patxo potolo bana etxeko guztien partez.



Zorionak eta muxu pila bat, printseza!



**Jurgik** lehenengo urtetxue ospatu dau ta **Suharek** zortzigarrena beteko dau. Zorionak bixoi! Zaparrada bat mosu! Jarraitu dekozen argi eder horregaz!




Zorion bero bero bat laztana!



Abuztuaren 30ean, Oromiño **Natali** Cebrianek 5 urte egingo ditu. Zorionak, maillia!



Zorionak gure printzesari aite eta amamaren partez. Mosu potolo bat.



90 urte eta larrosia lez. Zorionak, ama, amama, birramama.

### Eskela



**Julene Barrenetxea Zuazua**

Aio maitia, gauero ikusiko zaitugu Anboto zeru inguruan, izar more, gorri liluragarriena... Izugarria izan da zurekin bizitzaz gozatzea.

Abadiñoako kuadrilla.

**urtxintxa**  
*jostailu denda*

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

# uxarte

SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

**ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ**  
Gutxienez 15 lagunekoko taldeentzako

## BODEGUILLA

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

# “Gutxi baloratzen da sorosleen lana; topikoz beteta dago gainera”

Abadiñoako igerilekuan soroslea da Ane Baraiazarra eta, berak dienez, nekez betetzen da sorosleen esana. Edozer gauza gertatuta, soroslea erreferentea izan behar duela uste du.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Udaldia amaituta, irailan hartuko ditu oporrak Ane Baraiazarrak. Sorosle eta kirola egiteko monitore moduan jardun du lanean Abadiñoako igerilekuan goi mailako kirol ikasketak dituen durangar honek. Oraindik ere, sorosle lana topikoz betetako lanbidea dela dio berak. Horretaz eta soroslearen egunerokoaz jardun du ANBOTOGaz.**

## Noiz hasi zinen lanean sorosle?

Bost urte dira titulua atera nuela, eta lehenengo udaldia Otxandioko igerilekuan egin nuen. Esperientzia oso polita izan zen. Udaldirako lan moduan ikusten nuen hasieran, dirutxo bat irabazteko. Udalekuan beharrean, sorosle lana egitea pentsatu nuen. Hala ere, urte osoko lana bihurtu da. Sorosle moduan ez ezik, urteko jarduerak (aquagim, aquabike, umeentzako ekintzak...) egiteko monitore ere banaiz. Durangon goi mailako kirol zikloa egin nuen eta horren barruan sorosle titulua ere atera nuen. Beti gustatu izan zait ura, eta igeri egitea.

## Beti egin duzu lan igerilekuan?

Bai. Gurutze Gorriak urtero egiten ditu probak, baina beti harrapatu naute eski denboraldian. Gustatuko litzaidake hondartzan lan egitea, baina, momentuz, ez dut nire burua horretan ikusten. Hondartzan arriskuak handiagoak dira, ohikoa da erreskateren bat egin behar izatea, bizia arriskuan jarri behar izatea. Eguraldiak eta itsasoaren aldaerak eragin handia dute. Gainera, jende gehiago dago. Ondo pasatzera doaz eta ez dute arriskurik ikusten. Igerilekuan babestuago zaude, baina beti gerta liteke zerbait.

## Igerilekua eskiengatik aldatzen duzu neguan?

Txandakatu egiten ditut. Abadiñoako igerilekuan eta gimnasioan aste-

lehenetik eguenera lan egiten dut; Durangoko igerilekuetako gimnasioan ere aritzen naiz. Bariku, zapatu eta domeketan, ostera, Astungo (Aragoi) eski-estazioan lan egiten dut. Gustuko tokian aldaparik ez.

## Zein da soroslearen lanik gogorrena?

Larrialdiren bat ez badago, esango nuke bertan orduak ematea dela orduak luzeagoak egiten dira ezer egin barik. Hori egunerokoari dagokionez. Bestalde, bainulari bat itotzea edo norbaiti bihotzekoak ematea eta ezer egiterik ez izatea... ez zait pasatu, baina hori bizitzea oso gogorra izan behar da. Jota utzi behar zaitu.

## Eta alderik politena?

Badaude egunero etortzen diren bainulariak, eta sortzen den harremana nabarmenduko nuke. Abadiñoan badugu bat, Pedro Mari, beti zerbait ekartzen diguna: ogia, aldizkaria, barazkiak... Lotura polita sortzen da. Horrez gain, jendea kirola egiten ikustea, hobetu egin gura duena ikustea interesgarria da.

## Zeintzuk dira ohiko istripuak?

Korrika doazela jausi eta belauanean min harzen dute ume askok. Ez dela denbora asko, lau urteko mutiko bat labandu eta txankleta trabatu zitzaion; ezin genion atera. Drama txiki bat izan genuen. Iaz, emakume bat zoraiatu egin zen. Ezin zen mugitu, ezin zuen berbarrik egin, eta susto galanta hartu genuen. Bakarrik nengoen gainera. Protokoloari jarraitu genion eta anbulantzia eraman zuten. Soroslerik onena zuhurren dabilena dela diote, prebentzioz jokatzeko duena.

## Betetzen da sorosleen esana?

Ez. Inondik inora! Badaude soroslea erreferente lez hartzen duten bainulariak. Galdezka etortzen zaizkigu, eta asko eskertzen dugu.

Askotan polizia sentazioa dut, eta hori ere ez da kontua. Gu ez gaude esateko gozokiaren plastikoa ezin dela lurrera bota, zerbait gertatzen bada prest egoteko baino. Gurea ez den funtzio bat egiten dugu askotan, poliziarena. Neguan

gehiago betetzen da gure esana, kontzientziaz go dira kirol instalazio bat dela. Udan askok uste dute etxean dau-



dela, ez igerilekuan.

## Gutxi baloratzen da zuen lana?

Oso gutxi. Topikoz beteta dago, gainera.

## Adibidez?

"Ez duzu ezer egiten-eta!", "lo zauden"... horrelako asko entzuten ditugu, edo "ito itxurak egingo ditut ea ahoz ahokoa egiten didazun". Azken hori emakumeok entzuten dugu batez ere, baina gizonak ere bai. Sorosleen edertasuna ere ohiko topikoa da. Pelikuletan ikusten direnak sinetsita daude batzuk.

## Eguraldi eskasagaz jende gutxiago joaten da?

Abadiñoan igerilekuetako teilatua itxi eta zabaldu egiten da, beti dago jendea; gainera, beti ditugu pare bat kale gordeta kirola egitera datorren jendearentzat. Urte osoko igerilekuak dira. Ez dugu desberdintasuna igartzen. Eguraldi eskasagaz ere asko datoz. Beste planik ez badute, umeekin jolastera datoz.

## Zein da zure eguneroko lana?

Ateak zabaldu, klimatizagailua amaitu... mantenu lana ere egiten dugu. Gimnasio txiki bat dugu pistinan eta bertan sartzen ditugu kirola egiteko makinak. Jende kopurua neurtu behar dugu eta analitikak egin, tenperatura hartu, eta jendea-ri lagundu. Beti dago zer egin.

## Udaldi osoa lanean ematen duzu.

Pozik nator lanera, jende artera. Eguraldi onak ere asko laguntzen du. Irailan hartzen ditut oporrak. Jende gutxiago dabil, eta merkeagoa da dena. Denak datozenean noa ni!

## Gomendiorik?

Kasu gehiago egitea. Zerbait badiogu, zerbaitegatik da, ez atzetik jardutea gustatzen zaigulako. Edozer dela-eta, soroslea erreferente lez hartzea, ez bakarrik salto egin daitekeen ala ez esateko, zorabio txiki bat baduzu ere bai. Gure lana serioago hartzea.

## Hondartza ala igerilekua?

Sorosle lez, igerilekua; aisialdirako, hondartza, dudarik gabe!

**Ane Baraiazarra Irazola**  
Soroslea eta kirola egiteko monitore  
Durango | 1994

## Lau-hortza

Martin Loizate Sarrionandia Ikaslea



## Botere eldarniozko fantasiak

Handikeriak jota, oker bat kalkuluetan, indarrak gaizki neurtzea. Gazteak lehenengo eta Alde Zaharreko bizilagunak ondoren, kalera irten dira. Gobernuko alderdia bakarrik geratu da, eta atzera egin du. Mundua ulertzeko modu bat aldarrikatu dute Gaztetxeok.

Iduri luke, Maravillas husteko erabakiari eman nahi izan dioten esanahi konkretuaz haratago, agintari klase baten aldetik badela gune autogestionatuak eraisteko jokabide patologiko bat, horrek ekar dezakeen eragin ekonomiko-elektoralaz gain behar bat adierazteko ez dagoela espaziorik euren kontrolari ihes egingo dienik, sistemen logikatik aldentzen denik.

Euskal Jai-Barcina, Kukutza-Azkuna, Kortxoenea-Goia (oihartzun ozenena izan dutenak aipatzearen), edo Errekaleor-Urtaran, Maravillas-Barkos. Eraisketa dosia: Eraikin ikoniko bat eraikitzea beste desio dute espazio komunitario bat botatzea.

Imajinatzen ditut ispi-luari begira "ispilutxo, ispilutxo" galdetuz ea nork egin dituen dorrerik altuenak, zubi eta tunelik luzeenak. Galdetuz nork eraitsi edo hustu dituen gune autogestionatu gehien. Ispiluk erantzungo duenaren zain, "ispilutxo, ispilutxo" nor den munduko alkaterik onena.

Gora Gazte Boterea eta gora Gaztetxeak!

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71 c  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
Goikoibarra Kalea, 26  
48300 GERNIKA-LUMO (Bizkaia)

946 824 5550  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net

